

# Izena duen orok dauka bere izana

Hizkera sexista ez  
erabiltzeko protokoloa

Egilea: Sonia Gonzalez

Euskarazko bertsio hau da originala.  
Erdarazkoa itzulpena da.



EUSKO JAURLARITZA  
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN  
ETA GIZARTE SEGURANTZA SALA



GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

**2002**

# Txostena

## Aurkibidea

### Sarrera

1. Aztertutako korpua. ....	5
1.1. Datuen nondik norakoak	
2. Zer da hizkera sexista edo androzentrista? ....	11
2.1. Sexismo eta androzentrismoa	
2.2. Hizkera androzentrikoa ez erabiltzearen garrantzia	
2.3. Zelan atzeman hizkera edo idazkera androzentrista?	
2.4. Sexua eta generoa	
2.5. Maskulino generikoak	

## Konponbide eta gomendioak ..... 23

### Zenbait ohar hasi orduko

1. Maskulino singulararen erabilera androzentrikoa ....	27
1.1. Femeninoa eta maskulinoa batzen dituzten formulak, maskulino singulararen ordez.	
1.2. Andrazkoak eta gizonezkoak batera izendatzen dituzten generikoak, maskulino singulararen ordez.	
1.3. Konponbide mistoak	
2. Maskulino pluralaren erabilera androzentrikoa ....	31
2.1. Femeninoa eta maskulinoa batzen dituzten formulak, maskulino pluralaren ordez.	
2.2. Sexu biak batzen dituzten generikoak, maskulino pluralaren ordez	
2.3. konponbide mistoak	
3. Artikulu femeninoa eta maskulinoa gehi genero neutrodun izena ....	35
4. Aldaketa txikiak esaldiaren idazkeran, maskulinoa ezabatze edota sexu markarik ez agertzeko ..... 37	
4.1. "Quien" edo "quienes" erabili	
4.1.1. Konponbide mistoak	
4.2. Idazkera despertsonalizatu	
4.3. Generikoak ez diren maskulinoak ezabatu	
4.4. Gaztelerazko "se" izenordearen erabilera	
4.5. "Todos" adierazpidea	
5. "Nosotros" izenordearen arazoa ....	47
6. Femeninoa eta maskulinoa txandaka ....	51
7. Barraren erabilera (/) eta @ zeinuaren nondik-norakoak ....	55
8. Femeninoa eta maskulinoa asimetrikoki erabiltzen direnean ....	57
9. Bibliografia aipuak ....	61
10. Femenino eta maskulinoaren ordena ....	65
11. Jauzi semantikoa ....	69
12. Miembra, "autoritadedunak", "kritikatuak", nazionalitateak eta ogibideak ....	73
12.1. Miembro-miembra	
12.2. "Autoritadedunak" eta "kritikatuak"	
12.3. Nazionalitateak	
12.4. Zenbait ogibide	

Erabilitako bibliografia ....	89
-------------------------------	----

Aukera berdintasun plana

4

*No existe un lenguaje puramente masculino  
y un medio familiar puramente patriarcal  
en el que no pueda penetrar  
un discurso femenino disonante*  
PILAR GARCÍA MOUTON

Orain mila urte baino gehiago, eta mendeetan zehar, Txinako lurralde batzuetako andrek 2.000 karakteretako grafia asmatu eta erabili izan zuten, gizonezkoek ulertzen ez zutena. Eta Txinako iraultzaren ostean "sorginen lengoia" deitu izan zioten komisario politikoek. Gaur egun, andra zahar gutxi batzuek baino ez dute *nushu*-a ezagutzen, lengoia femenino hori, alegia, baztertua eta ehizatua izan ondoren. Andra hauetako baten egunkarian zera geratu da idatzita: "gizonak etxetik irteten ausartzen dira kanpoko munduari aurre egiteko, baina ez dira emakumeak baino ausartagoak, emakumeek eurek ulertu ezin duten lengoia sortu dugulako".

Gauza argia da *nushu*-a asmatzea eta erabiltzea genero diskriminazioaren aurkako adierazpena izan zela, jasaten zuten zapalkuntza eta loturen kontrako erantzuna.

Gaur egun guk ez dugu andrazkoontzako lengoia sekreturik asmatu gura, baina konturatu gara geu ere barne hartzen gaituen lengoia behar dugula, geure errealitatearen berri ere ematen duen lengoia, erosotasunez erabiliko dugun lengoia. Lengoia neutro-unibertsal-maskulinoak ez digu balio.

Jendartearen ezagupenak hasiera batean ahoz komunikatu izan ziren. Denboraz, ahozko komunikazio hau idatzizkoak ordezkatu zuen zatirik handienean eta gaur egun hedabideen hegemonia argi eta garbia da. Gure sindikatuan ere idatzizko komunikazioak funtzio garrantzitsua betetzen du LAB barruko jendearen artean informazioa zabaltzeko; baina, aldi berean, hedabide funtzioa ere presente dago, ateratzen ditugun argitalpen guztietan, *Iraultzenetik* hasita, azken *Informatzeneraino*. Beraz, ahal dugun neurrian, edukiak ez ezik, adierazpide moduak ere jagon beharrekoak dira. Idazkerari egiten diogu erreferentziarik handiena, baina gura genuke honek berbakera modurako ere neurri batean balio izatea. Horretara dator azterketa hau, andrazkook presente egongo garen diskurtsoa erabiltzeko irizpideak finkatzera eta behar duen orori laguntza erraz eta erabilgarria ematera.

## **Erabilitako zeinuen inguruan**

Lan honetan zehar zeinu batzuk erabiliko dira esaldien egokitasuna adierazteko:

\* (izartxo) esaldi baten aurrean agertuz gero, horrek esan nahi du esaldi hori ez dela egokia.

Agertzen dena √ ikurra izanez gero, horrek esan nahi du esaldi hori egokia dela.

Aukera berdintasun plana

6

# Txostena

## 1. Aztertutako korpua

### 1.1. Datuen nondik norakoak

Idazkera androzentristaren inguruko azterketa honi ekin orduko, lehenbiziko eginbeharra sindikatuak ekoizten dituen testu ezberdinak miatzea zen, lehenengo eta behin ohitura hau norainokoa zen konprobatzeko eta zein testuinguruetan suertatzen ziren maiztasun handiagoz egiaztatzeko, baina, era berean, lan hau garrantzitsua zen zailtasunik handienak nondik nora zihoazen jabetzeko eta, gerora, konponbiderik egokienak topatu ahal izateko.

Guztira, 47 argitalpen ezberdin jorratu izan dira: nazionalak, sektoreetakoak, eskuartze arloetakoak, hezkuntzakoak eta prentsakoak. Aukeran, argitalpen nahiko berriak gurago izan ditugu (2001 eta 2002 urteetakoak gehienak<sup>1</sup>). Hala ere, tartean argitalpen zaharrago batzuk ere hartu ditugu, bertan azaltzen zen gaiak hizkera molda zezakeenik iker-tzearren.

Argitalpen hauek osorik miatu ditugu eta denetara 371 artikulua izan dira. Puntualizazio hau ere inportantea da, argitalpen gehienak talde-lanak izaten direlako eta, beraz, ez dituelako pertsona bakar batek gauzatzen. Batzuen artean egiten direnez gero, nor bere idaztankera dauka.

Azkenik, 2.849 sintagma izan dira gure korpua osatu dutenak. Sintagmaz sintagma joan gara, beraz, adierazpen sexistak edo, hobeto esanda, androzentristak ez ezik, emakumezkook ere "agertzen<sup>2</sup>" garen esapideak badaude korpua barruan.

Ondoren, aztertutako korpusaren zehaztapenak emango ditugu:

#### Argitalpen nazionalak

**Iraultzen 110** (2002ko otsaila)

**Iraultzen 109** (2002ko urtarrila)

**Estatutuak** (2001eko apirilean onartuak)

#### **5. Biltzarreko ponentziak** (2000ko apirila)

Ponentzia politikoa: "Euskal Herria, nación de todos y todas y para todos y todas"

Ponentzia sindikala: "Hacia una nueva sociedad en un marco de soberanía"

Antolakuntza ponentzia: "Una organización participativa y eficaz"

**Barne txostenak:** "Negociación colectiva 2002" (2001eko azaroa)

<sup>1</sup> Data honetatik aurrera argitalpen gehienek idazkera androzentrista dagoeneko Komunikazio taldeak zuzendua izan da.

<sup>2</sup> Azken hau kaxotxo artean dago, zeren eta, geroago ikusiko dugunez, konponbide guztiak ez baitira baliogarriak, hau da, zenbaitetan, konponbideren bat aplikatu arren, andrazkook ez gara errepresentaturik gelditzen idazkietan.

## Hezkuntza

**Egunoa:** "Egoera sozioekonomikoa 2001" (2002ko apirila)

**Testu legalak:** "Normativa electoral para comités de empresa" (2002ko apirila)

**Sindikalk heziketa:**

"Técnicas de expresión escrita" (2001eko abendua)

"Análisis del conflicto Euskal Herria y Estado español" (1998)

## Eskuartze-arloak:

Lan osasuna eta ingurugiroa: Zaintzen (2001eko abendua)

## Sektore egitura

**Administrazio zentrala:** Iraultzen (2001eko azaroa)

**Bizkaiko Diputazioa:** Karraspio (2001eko azaroa)

**Bilboko Udala:** Zuzenki (2001eko azaroa)

**Estatuko administrazioa:** Informatzen (2002ko urtarrila)

**Osasungintza:** Iraultzen (2001eko abendua)

**Osakidetza:** Informatzen (2002ko otsaila)

**Irakaskuntza publikoa:**

Irakasberri (2002ko urtarrila)

Lan egonkorra (2001eko urria)

**Metalgintza:**

Nervacero-Aldaketa (2002ko martxoa)

Dana-Geurea (2002ko martxoa)

TRW-Gidaria (2002ko martxoa)

**Garraio eta Telekomunikazioak:**

Eusko Tren- Informatzen (2002ko martxoa)

Telefónica-Txalaparta (2000ko urria)

Telefónica-Informatzen (2001eko otsaila)

**Kimikak:**

Vicrila-Beirots (2001eko maiatza)

**Finantzak:**

Laburu (2001eko uda)

Banka-Informatzen (2000ko iraila)



## Prentsa oharrak eta txostenak

Presupuestos generales CAV 2002 (2001eko abendua)  
Precariedad laboral en los sistemas públicos de salud (2001eko abendua)  
Debate presupuestario en el Parlamento de Gasteiz (2002ko urtarrila)  
Acuerdo ELA-ESK para la negociación colectiva (2002ko otsaila)  
Garzón contra Segi y Askatasuna (2002ko otsaila)  
Datos de la EPA, último trimestre del año 2001 (2002ko otsaila)  
Evolución de la afiliación a LAB en el año 2001 (2002ko otsaila)  
Junta de accionistas del BBVA (2002ko martxoa)  
Valoración sobre los datos publicados por el EUSTAT (2002ko martxoa)  
Salvar GAMA, salvar Orduña (2002ko martxoa)  
Convenio colectivo provincial hormigones y canteras (2002ko apirila)  
Alto a la agresión israelí (2002ko apirila)  
El tripartito se pliega a la voluntad de Madrid (2002ko apirila)  
Conculcación de los derechos del alumnado (2002ko apirila)  
Ante la nueva reforma laboral del gobierno español (2002ko apirila)  
Paro de cuatro horas en Telefónica (2002ko apirila)  
Cámaras de video vigilancia en Txagorritxu (2002ko apirila)  
Riesgo de recesión y empeoramiento del empleo (2002ko maiatza)  
Condiciones de acceso al empleo (2002ko maiatza)

Ondoren emango dugun taulan argitalpenez argitalpen zehaztuko ditugu artikuluko kopurua eta bertan aztertu ditugun sintagmen artean zenbat suertatu diren androzentrikoak eta zenbat ez, hau da zenbatetan gauden ezkutuan andrazkook eta zenbatean gauden irudikatuturik:

ARGITALPENA	Artikulu kopurua	Sintagma kopur.	Androzentrikoak	Ez androzentr.
Iraultzen 110	29	134	69	65
Iraultzen 109	29	134	70	64
Estatutuak	11	55	10	45
Ponentzia politikoa	4	79	27	52
Ponentzia sindikala	6	158	35	123
Antolakuntza ponent.	10	90	41	49
Negociación colec.	28	128	17	111
Zaintzen	15	229	127	102
Administrazio zen.	12	12	8	4
Karraspio	11	63	56	7
Zuzenki	6	11	6	5
Estatuko administra.	1	18	9	9
Osasungintza	16	74	40	34
Osakidetza	1	51	45	6
Irakasberri	6	2	1	1
Lan egonkorra	5	1	1	0
Aldaketa	10	90	58	32
Geurea	4	36	32	4
Gidaria	9	98	53	45
Eusko Tren	8	80	64	16
Txalaparta	14	67	31	36
Telef. Informatzen	6	28	10	18
Beirots	1	5	5	0
Beirots (otsaila)	11	74	57	17
Laburu	9	51	26	25
Banka Informatzen	3	59	48	11
Egungoa	10	14	3	11
Normativa electoral	36	314	40	274
Téc. expr. escrita	17	97	48	49
Análisis conflicto	26	84	40	44
Prensa	28	162	45	117
<b>Guztira</b>	<b>382</b>	<b>2498</b>	<b>1122</b>	<b>1376</b>

47 argitalpen: nazionalak, sektoreetakoak, eskuartze arloetakoak, hezkuntzakoak, prentsa oharrak eta txostenak.

382 artikuluko guztira: argitalpen asko talde lanak izaten dira eta argi dago nor bere idaztutikera daukana.

2.498 sintagma guztira: adierazpen sexista edo androzentristak gehi emakumezkoak ere "agertzen" garen adierazpideak.

Gauza argia denez, ez ditugu testuetako sintagma guzti-guztiak kontuan hartu, gure azterketarako adierazgarriak izan zitezkeenak baino ez.

Datu hauek ikusita, lehen begiratu batean behintzat, esan genezake emaitzak poztekoak direla zati batean,

zeren eta egia baita eta aitortu beharrekoa sindikatuan gai honen inguruan sentsibilizazio prozesua suertatu dela. Izan ere, orain zenbait urteko argitalpen eta testuetara joz gero, gai hau sekula jagoten ez zela topatu dugu.

Hala eta guztiz ere, sintagma ez androzentrikoak zenbatzean nahiko eskuzabalak izan gara. Esan gura dugu zenbaitetan argi ikusten dela andrazkook ere agertzen ahalegiten dela artikulatu baten autorea (batez ere, genero biak aipatzen direnean, "las afiliadas y los afiliados" modukoetan, hain zuzen), baina beste batzuetan sintagma ez androzentrikotzat jo izan ditugunak beharbada idazkera androzentrikoa ekiditeko inolako asmorik gabe izan dira idatziak. Esaterako "quienes" esapidea sintagma ez androzentrikotzat jo dugu behin baino gehiagotan (horrela egin behar genuela uste izan dugunetan); izan ere, esapide honek "los que" ordezkari lezake, baina baliteke autoreak besterik gabe edo normaltasunez aukeratu izana. Edozelan norberak berba bakoitza zein asmoz idatzi duen asmatzea zail samar suertatuko litzaiguke, ezi-nezkoa ez esatearren, eta zalantzarik horiek sintagma "ez androzentrikoen" artean kokatzea izan da erabakia

Edozelan ere, numeroak gorabehera, saiakera egin egiten da, baina hori ez da nahikoa. Ahalegin horiek nolabait bideratu beharra dago eta horretara dator lan hau.

Hiru puntutan labur genitzake momentuz igartzen diren hutsunerik nabarmenenak:

\* Oraindik ere ez dago guztiz zabaldua. Nazio mailako argitalpenetan, oro har, gehiago zaintzen da hizkera mota gai honi dagokionez, baina sektoreetako argitalpenetan, batez ere, denetarik topa dezakegu.

\* Ez da gauza sistematikoa. Argitalpen bakar batean joera diferenteak topa ditzakegu. Artikulu beretan ere zenbaitetan paragrafo batzuetan maskulino hutsean ez idaztea jagoten da, baina hurrengo paragrafoa pasatzean kontua ahaztu egiten da.

\* Idazkera androzentrikoa saihesteko erabili ohi diren hainbat irtenbide, geroago ikusiko dugunez, ez dira ego-kiak, batzuk gramatikalak ez direlako eta beste batzuk androk bertan islatzea zeharo lortzen ez dutelako. "Konponbide eta gomendioak" ematen ditugunean ikusiko dugu hau, 7. kapituluaren, hain zuzen ere, bertan barraren (/) eta @ zeinuaren inguruan arituko baikara.

Aukera berdintasun plana

12

# Txostena

## 2. Zer da hizkera sexista edo androzentrista?

### 2.1. Sexismo eta androzentrismoa

Andrazkoon diskriminazioa munduaren zenbait esparrutan, hainbat modutan azaltzen da. Diskriminazio erak anitzak dira, denok dakigunez. Lengoia, beraz, ez da salbuespena. Hizkuntza arloan ere menpeko papera utzi digute eta gu, ikusle pasiboak baino, hizkuntza baztertzaila horretan parte hartzera eta erabiltzera behartuta egon gara.

Izan ere, ezer baino lehen, oso argi eduki behar dugun kontzeptua da hizkuntza sistema ez dela neutroa. Hizkuntza ez da berez sortu den gauza. Denok gaur egun erabiltzen dugun zeinu linguistikoen sistema hori jendeak -gizon eta emakumeek- komunikaziorako eta pentsamendurako moldatuz, sortuz eta bersortuz joan garen tresna da.

Hizkuntza aldaketen bitartez garatzen da. Aldaketa hauek aldaki batzuen arteko hautapenean oinarritzen dira eta ez dira sortzen arau linguistikoei bakarrik jarraiki. Zenbait faktore linguistikoak badira ere, hizkuntzatik kanpoko faktoreak izango dira erabakigarriak kontu honetan, hala nola, adina, sexua, faktore soziokulturala, arraza eta etnia...

Honela, aldaki bat baino gehiago borrokan baldin badaude hizkuntz komunitate batean, hizkuntzatik kanpoko faktore horiek guztiek azalduko dute zergatik irabaziko duen aldaki horietako batek, baina azken batean hiztunak izango dira baten bat aukeratuko dutena. Honen adibideak ikusiko ditugu, besteak beste, ogibideen inguruan aritzen garenean.

Hala ere, ez gara honetan luzatuko. Digresio honen arrazoi hutsa, lehen esan bezala, hizkuntza sistema zerbait neutroa ez dela argi uztea baita, ez dela gramatika arauetan bakar-bakarrik datzan kontua. Laburbilduz, beste guztia bezalaxe, boterea duenak -zentzu zabalean- hizkuntza ere kontrolatzen duela esan genezake, honen konplexutasuna premisa horretan larregi murriztea dela jakin arren.

Normaltzat jo izan dugu gaztelerazko konkordantzia beti dagoela maskulinoaren alde; "padres" berbak ama eta aitari, biei, egiten diela erreferentzia; euskaraz "aita-amak", "seme-alabak", "senar-emazteak" bezalako bikoteetan gizona beti doala lehenen; "hombre" edo "gizon" hitzek pertsona guztiak izendatzeko balio duela. Onartu egin dugu eta natural ikusten dugu andrak horrela ezkutatzea edo bigarren mailara botatzea. Lengoiaren eta diskriminazioaren arteko harremanak begibistakoak dira.

Baina, honi ekin orduko, "androzentrismo" eta "sexismo" kontzeptuak azaldu behar ditugu

Gehienetan androzentrismoa eta sexismoa batera doaz. Hala ere, ez dira zehazki gauza bera.

Androk eta gizonak murgilduta gauden kultura, kultura androzentrikoa da, gizona gizona dira ororen ardatza, hau da, gizonen neurri baliogabetzen da oro eta finkatzen dira jarraitu beharreko ereduak. Sexismoa andrazkook garena edo egiten duguna gaitzesten eta baliogabetzen duen jokabide edo jarrera da.

Androzentrismoaren esparrua zabalagoa da, jokabide kulturala baita. Menperatzaileen botereari eta menperatuen zapalkuntzari eutsi eta jarraipena ematen dien ikuspuntua da. Esan gabe doa androzentrismoaren eredu soziokulturala gizonezko heterosexuala dela.

Sexismoa diskriminazio modu aktibo eta zehatza da, androzentrismoa, ordea, pasiboki jokatzen duela esan genezake, egiten duena androk ezkutatzea baita. Sexismoa, beraz, askoz agerikoagoa da eta, zorionez, gero eta gaitzetsiagoa izaten da jende artean.

*“El androcentrismo consiste en un punto de vista orientado por el conjunto de valores dominantes en el patriarcado o, dicho de otro modo, por una percepción “centrada” y basada en normas masculinas. Es tomar al hombre como medida de todas las cosas; todo discurso que presenta aspectos de la vida de las mujeres como una desviación (a la norma) es androcéntrico.*

*El androcentrismo es sobre todo una perspectiva. Consiste fundamentalmente en una determinada y parcial visión del mundo que considera que lo que han hecho los hombres es lo que ha hecho la humanidad o, al revés, que todo lo que ha logrado la especie humana lo han realizado sólo hombres, consiste también, por tanto, en la apropiación de los logros femeninos por parte de los hombres. Es pensar que lo que es bueno para los hombres es bueno para la humanidad, es creer que las experiencias masculinas incluyen y son la medida de las experiencias humanas; de una manera u otra, valorar sólo lo que es masculino. es considerar que los hombres son el centro del mundo y el patrón para medir a cualquier persona”<sup>3</sup>*

*“El sexismo, en contraste con el androcentrismo, es fundamentalmente una actitud que se caracteriza por el menosprecio y la desvalorización, por exceso o por defecto, de lo que son o hacen las mujeres.*

*El sexismo es una actitud derivada de la supremacía masculina, se basa en la hegemonía de los hombres y en todas aquellas creencias que la respaldan y la legitiman. También se puede definir como el conjunto de los métodos utilizados por el patriarcado para seguir manteniendo en una situación de subordinación al sexo femenino. Es una relación social en la que los machos tienen poder sobre las hembras”<sup>4</sup>*

Honela, hizkera edo idazkera androzentrikoak diskriminatu egiten du, baina ez da beti egoera sexista baten isla:

*“Los trabajadores protestaron frente al edificio de la patronal”*

*“El poder adquisitivo de los trabajadores es cada vez más bajo, a este ritmo no podrán ni mantener a sus hijos y a sus mujeres”*

<sup>3</sup> Lledó Cunill, Eulàlia, *Nombrar a las mujeres, describir la realidad: la plenitud del discurso*, curso de formación y acreditación en consultoría para la igualdad de mujeres y hombres, Emakunde, 6. or. [http://www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje\\_1.pdf](http://www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje_1.pdf).

<sup>4</sup> Id.

Lehenbiziko esaldia androzentrikoa da, gizonezkoak baino aipatzen ez direlako, langile talde horretan gizonezkoak ez ezik, andrazkoak ere egon arren. Bigarrena, berriz, esaldi sexista da, argi eta garbi, ez du azalpen premiarik. Konturatu ahal zaretenez, bigarren esaldiaren arazoa ez da gramatikala, euskaraz ere (eta edozein hizkuntzatan) esaldi sexista delako emaitza: *“Langileen eros ahalmena gero eta murriztagoa da, honela jarraituz gero, ezingo dituzte euren seme-alabak eta emazteak mantendu”*.

Diferentzia hau Álvaro García Meseguerrek bestelako termino batzuetan azaltzen du:

*“Un hablante incurre en sexismo lingüístico cuando emite un mensaje que, debido a su forma (es decir, debido a las palabras escogidas o al modo de enhebrarlas) y no a su fondo, resulta discriminatorio por razón de sexo. Por el contrario, cuando la discriminación se debe al fondo del mensaje y no a su forma, se incurre en sexismo social<sup>5</sup>”*

Guk “hizkera androzentristari” deitu diogunari “sexismo lingüístico” diotso berak, eta sexismotzat jo duguna “sexismo social” izendatu du. Hau da “sexismo linguistikoa/hizkera androzentrista” eta “jendarteko sexismoa/sexismoa” lotuta daude, baina ez dira bata bestearekin nahastu behar.

Egoera bera -sexista ala ez sexista- modu ezberdin biren bidez adieraz daiteke: hizkera sexistaz edo hizkera ez sexistaz. Adibidez, norbaitek honelako zera botatzen badu *“Emakumezkoek ez dute balio zenbait lan betetzeko”* argi dago pentsamendu sexista diskriminatzailea adierazi duena, baina mezua ez da linguistikoki sexista. Hala ere, *“Oferta de las plazas de enfermeras-os o médicos”* bezalako esaldi batean ez litzateke errealitate segregatzailea izango (andrazkoek eta gizonezkoek bietan parte har dezaketela suposatzen baitugu), baina linguistikoki sexista da, andrazkoek erizain lanposturako bai, baina mediku lanposturako agertzen ez garelako.

Beraz, lan honetan zehar termino biak erabiliko ditugu “hizkera androzentrikoa” eta “hizkera sexista”, baina beti eduki beharko dugu kontuan sexismo linguistikoari egiten diogula erreferentzia eta ez sexismo sozialari, esplizituki adierazten ez badugu, behintzat.

---

<sup>5</sup> GARCÍA MESEGUER, Álvaro, “El español, una lengua no sexista”, M. D. Fernández de la Torre Madueño, A. M. Medina Guerra eta L. Taillefer de Haya (arg.), *El sexismo en el lenguaje*, Málaga, CEDMA, 1999, 51-76 or.

## 2.2. Hizkera androzentrikoa ez erabiltzearen garrantzia

Hizkuntza eta hizkera androzentriko eta sexista jendarte androzentriko eta sexistaren isla eta ondorioa da. Jendarte bakoitzak (esan nahi baita, jendartearen zenbait "estamentuk", hizkuntza botere erlazioen emaitza da eta) bere hizkuntza sortu eta birsortu egiten du, elkarbizitza ereduen arabera.

Argi dago sexismoaren ondorio bakar honi ekinez ez dugula sorburua (hau da, jendarte bera) guztiz konponduko edo aldaraziko. Dena dela, hizkuntza pertsona ororen pentsamendu eta komunikazio oro bideratzeko eta kodifikatzeko tresna den heinean, zenbait aurrerapausu egitea posible da.

Jaiotzetik hasten gara jendartearen eragina jasotzen. Honek, ezinbestez, mundua ikusteko eta atzemateko modu berezia emango digu. Errealitateaz jabetzeko modu nagusien eta inportanteena lengoaia da. Lengoiaren bitartez pertsonok ideiak trukatzeko ditugu, bizipenak pilatzen ditugu... Hizkuntzaz geure unibertsoa kategoriatu edo sailetan banatzen ikasten dugu. Hitzen bidez gauzak izendatu ez ezik, gure pentsamenduan gauzoi antolaketa berezia eman ere egiten dugu. Neskatoek eta mutikoek hitzak ikasten dituzten neurrian, hauen atzean ezkutatzeko den ideia ere ikasten dute, hau da, besteek errealitateari ematen dieten errealitate modua ikasten dute. Hizkuntzak pentsamendu kolektiboaren sistema islatzen du eta jendarte bakoitzak zelaz pentsatzen, sentitzen eta jokatzeko duen transmititzen du.

*"Si el lenguaje tipifica la experiencia y la transmite en forma de acopio social de conocimiento, el tipo de lenguaje que se utilice determina, de un modo fundamental, el acceso a ese conocimiento. Es por eso que el soporte de la comunicación tiene una considerable importancia como mediador y creador del conocimiento social"*<sup>6</sup>

Errealitatea, lengoiaren bidez, objektiboa bailitzan agertzen zaigu. Lengoaia zeinu sistema da, jendarte multzo batek onartutako eta konpartitutako zeinu sistema, hots, pertsonarena baina, aldi berean, pertsona bakoitzetik kanpoko. Hortaz, lengoaia bera eta lengoiaren ikas prozesua ez dira neutroak, ez dira inpartzialak, ez dira objektiboak. Teoria androzentrikoz blai daude eta, beraz, pertsonengan eragiten dute, mundua ezagutzeko modua moldatuz eta jokabide zehatzak eratuz. Jakina, argi utzi behar dugu transmisio modu hau inkontzientea dela, soziala den ia ororekin gertatzen den antzera, baina horrexegatik da arriskutsuagoa, pautak horiek zalantzatan jartzen ez direlako: finkatu eta aldagaitz bihurtzen dira.

Esan bezala, lengoaia pentsamendua adierazteko tresna da, kultura bidea da, momentu historiko bakoitzeko jendarte islatzen du, zentzu honetan, bere ezaugarri nagusienetako bat aldakortasuna da, lengoaia aldatu egiten da, pertsona bakoitzaren eta sasoi bakoitzaren beharren arabera. Jendarte ere aldatuz eta garatuz doa, pentsamolde eta jokabide ezberdinetara moldatuz. Lengoaia garapen honetan baliabide erabakigarria da guztiz, jendartearen isla ez ezik, eredu ere badelako. Momentu bakoitzean jendarte zelakoa den islatzen du, baina, aldi berean, etengabe aldatzen ari denez, forma berriak eraikiko ditu, pertsonen eta pertsona taldeen beharren arabera. Aldaketa hauek, finkatu ahala, eredu bihurtuko dira hurrengo belaunaldientzat, hizkuntzaren bidez errealitatea atzemateko modu berriak ikasiko dituztenak eta errealitate honi euren jokabideak egokituko dizkiotenak.

Amaitzeko, eta honen garrantziaz ondo ohartzeko ariketa praktikoa erraza egin genezake. Edozein esaldi edo adierazpide androzentriko irakurri (ondokoak gure argitalpenetatik aterata daude):

<sup>6</sup> RAMOS, Celia, "Los medios de comunicación, agentes constructores de lo real", <http://www.quadernsdigitals.net/articles/comunicar/comunicar5/com5108.pdf>



*“Denunciar el pacto social entre **empresarios**, gobiernos y sindicatos...”*

*“...pese a la generosa manga ancha de **los gobernantes europeos**”*

*“interpelar a **los políticos** en el poder”*

*“Otorgar poderes a **los responsables confederales** para el desarrollo de sus funciones”*

Teoriak esan diezaguke gramatikak ez duela diskriminaziorik (bereizketarik) egiten, genero maskulinoa denontzat aukeratu izana konbentzio hutsa dela..., hamaika esan diezaguke. Baina, horrela balitz ere, azken batean inportanteena, erabilitako berbak baino, emaitza bera da: androk ezkutaturik gelditzen garela. Izan ere, entzuleok edo irakurleok diskriminatu egiten dugu, aipatzen genuen errealitate hori buruan irudikatzen dugu zehatz eta mehatz. Esaldi horien guztien atzean irudikatzen ditugunak, nahi gabe edo inkontzienteki bada ere, gizonezkoak izan ohi dira.

Hau da, gramatikak agindu legez denak -gizonezkoak zein andrazkoak- saku berean sartzen ditugu (genero maskulinoaren sakuan, noski); baina esaldi horrek sorrarazten duen irudian, geure idearioan, alegia, “políticos” berbaren atzean errazena trajedun gizon aldra agertzea izango da. Berdin “obreros” esanda, mono urdina jantzitako gizon mordoa-ren imajina daukagu. Zelan konpondu hori? “clase obrera” esanda beharbada emakumezkoak ere irudikatuko zaizkigu eta, duda barik, horrelaxe izango litzateke “obreras y obreros” esango bagenu<sup>7</sup>.

Laburbilduz, hizkera androzentrista ez erabiltzearen garrantzia hasiera batean iruditu baino askoz handiagoa da. Ezin gara gelditu, beste askok egiten duten legez, gaur egun “politikoki zuzena” den horretan, sentsibildaderik ez mintzeko kontuan edota “modernitate” kontzeptu okerrean. Pentsamendua hitzez eraikitzen denez gero, hots, geure buruak pentsamendu oro prozesatzen duenean, hitzen bidez egiten duenez, hizkera androzentrista ez erabiltzeak pentsamolde androzentrista eta, berarekin batera errealitate androzentrista, aldatzera darama. Eta zati batean baino ez bada ere, fronte guztiak dira garrantzitsuak bazterkeriari aurre egitekotan.

17

---

<sup>7</sup> Hau guztia hobeto azalduko dugu 2.5. kapituluan, maskulino generikoak jorratzen diren kapituluan, alegia.

### 2.3. Zelan atzeman hizkera edo idazkera androzentrista?

Hizkuntzaren erabilera sexista ekiditeko egin behar dugun lehenbiziko gauza da atzematen ikasi. Honetarako oso erabilgarria da "inbertsio araua": esaldi batean gizonezkoari dagokion terminoa emakumezkoari dagokionaz trukatzeko baldin badugu eta emaitza horrek esaldiaren funtsa aldatzen badu edo, behintzat, harrigarri eta arraro suertatzen bada, edo emakumezkoari bakarrik egiten badie erreferentzia, orduan esan dezakegu esaldi hori sexista edo androzentrista dela.

*"**todos los representantes** de personal de la Administración foral y de las Administraciones Locales, tanto laborales como funcionarios"*

*"intervenciones específicas en el puesto de trabajo que ha causado el daño a **ese trabajador**"*

*"Diru ta potere izugarriak metatzen duten **jauntxoek**"*



*"**todas las representantes** de personal de la Administración foral y de las Administraciones Locales, tanto laborales como **funcionarias**"*

*"intervenciones específicas en el puesto de trabajo que ha causado el daño a **esa trabajadora**"*

*"Diru ta potere izugarriak metatzen duten **andereñoek**"*

Lehenbiziko adibidean maskulino plurala erabiltzen da generiko moduan, gizonezkoentzat eta andrazkoentzat. Hala ere, behin femininora pasaturik, emakumeentzat baino ez duela balio agertzen zaigu.

Bigarrenean ere, maskulinoa generiko moduan erabilita dago; kasu honetan singularrez egonda ere, edozein langileri egiten dio erreferentzia, bai gizonezko bati bai andrazko bati. Aipatutako inbertsio araua aplikatuta, ordea, emakumezko zehatz bati egingo lioke erreferentzia eta, generikoan, edozein emakumezkoari, baina sekula ez gizon bati.

Hirugarren adibidea askoz argigarriagoa da eta sexismoa berben esanahian legoke, berben erabileran baino: "jauntxo" eta "andereño" hitzek daukaten esangura guztiz diferentea da. Gizonezkoentzako terminoa gaztelarazko "cacique" esan nahi bitartean, "andereñoa" oraindik ezkondu ez den andra da. Hitz bikotea litzateke: "andrea/jauna", eta horitik "andereñoa/jauntxo". Baina hitz bikote horri ezarri zaion banaketa sexistaz zalantza izpirik ere ez dago.

Lan honen bidez hainbat formula emango ditugu bai honelako kasuak bai bestelakoak konpondu ahal izateko. Edozelan, hizkuntza sexista ekidin orduko, giltza ez da bakarrik terminoak aldatzea eta sexuaren arabera maskulino edo femenino bihurtzea, hau da, ezin gaitezke politikoki zuzena denaren itxurakerian gelditu, baizik eta jakin behar dugu zein den benetako arrazoia hau egiteko. Horregatik errepikatuko dugu beste behin ere norberaren iruditerian eragitea dela gakoa eta horretarako zenbait mezuk adierazten duten anbiguitatea ekidin behar dugu, mezu horiek inkontzienteki gizonekin edo emakumeekin lotzen baititugu.

## 2.4. Sexua eta generoa

Sexua eta generoa ez dira gauza bera. Sexua -emea edo arra- gure gorputzek determinatzen dute: organuek, ugalketa funtzioek, kromosomek, hormonek... ezberdin egiten gaituzte, sexu batekoak edo besteak egiten gaituzte.

Generoa, ordea, "femeninotzat" edo "maskulinotzat" jotzen den horretan datza. Generoa kulturari, sinesmenei, jendartearen balioei dagokie, eta kontu hauek guztiak denboraz eta momentu bakoitzeko egoeraz aldatzuz doaz.

"Genero" berba 70ko hamarkadan hasi zen erabiltzen, gizarte zientzietan, eta "sexu" edo "sexu-desberdintasun" bezalako adierazpideek adierazten duten determinismo biologikoaren kontrako termino moduan jaio zen.

"Sexu/genero" bikotea bananduz gero, sexua eremu biologiko-anatomikoan kokatzen da, eta generoa eremu sozio-kulturean, sinboloak eraikitze eremuan, hain zuzen ere. Honela, komunitate bakoitzak "maskulino" eta "femenino" kategoriek zer adierazi gura duten finkatzen du. Honek dakarrena zera da, komunitate bakoitzean "maskulinoa" eta "femeninoa" dena ez dagoela faktore biologikoen menpe, faktore sozial eta kulturalen menpe baino. Eta, hortaz, alda daitekeela.

Gure sindikatuaren testuetara ekarrita, kontu honek ere badauka bere inportantzia. Minbiziaren inguruko artikuluan zera aurkitu dugu:

*"Variando esta cifra en función al género 2% en las mujeres y 8% en los hombres"*

Oraintxe azaldutakoaren arabera "en función al sexo" beharko luke eta ez al "género".

Baina gramatikari dagokionez ere ezberdindu beharko ditugu kontzeptu bi hauek. Lan honetan garrantzi handikoa izango da genero gramatikala zer den argi uztea, azken batean hizkuntz protokoloa eratu gura baitugu. Lehenengo eta behin ikusiko dugu DRAEn (Diccionario de la Real Academia Española) zelako definizioa ematen diguten:

**"Género gramatical:** Clase a la que pertenece un nombre sustantivo o un pronombre por el hecho de concertar con él una forma y, generalmente sólo una, de la flexión del adjetivo y del pronombre. En las lenguas indoeuropeas estas formas son tres en determinados adjetivos y pronombres: masculina, femenina y neutra.

**Género femenino:** En los nombres y en algunos pronombres, rasgo inherente de las voces que designan personas del sexo femenino, algunos animales hembra y, convencionalmente, seres inanimados.

**Género masculino:** En los nombres y en algunos pronombres, rasgo inherente de las voces que designan personas del sexo masculino, algunos animales macho y, convencionalmente, seres inanimados<sup>8</sup>."

Hortaz, kasu honetan ere ez ditugu sexua (emea/arra) eta genero gramatikala (femeninoa/maskulinoa) nahastu behar. Zenbait berbetan parera doaz kontzeptu hauek biak: "niña" (andrazkoa eta genero femeninoa) eta "niño" (gizo-

<sup>8</sup> Real Academia Española, DRAE, Diccionario de la lengua española, Madrid, Espasa Calpe, 2001.

nezkoa eta genero maskulinoa). Kasu honetan, beste kasu askotan legez, aldaki bi daude, gehienetan -a/-o bukaerak dauzkatenak.

Hala ere, beste zenbaitetan sexu biak genero gramatikal berean -maskulinoan zein femeninoan- sartzen dira. honela, berba bakarra edukiko dugu sexu biak adierazteko: esaterako, “*persona*” femeninoa da eta “*ser (humano)*” maskulinoa, ez dago beste aldakirik, ezin da “\**persono*” edo “\**sera (humana)*” esan: sexu bietarako balio dute bai lehenbizikoak bai bigarrenak.

Esan beharrik ez dago hizkera androzentrikoaren arazoak lehenbiziko multzokoetan daukala oinarria. Sexu bietarako genero gramatikal biko hitzak daudenean eta maskulinoa bakarrik erabiltzen denean, orduantxe ezkututzen dira andrazkoak eta orduantxe daukagu hizkera androzentrikoaren arazoa. Bigarren multzoko berbak (aldaki bakarrak sexu biak bere barne hartzen dituenean, alegia) ez dira lan honen mintzagai izango, sexismo edo androzentrismoaren adierazpide ez diren heinean. Honelakoetan hizkuntzak generoetako bat aukeratu du sexu bietarako eta, esan bezala, batzuetan genero femeninoa izango da eta beste batzuetan genero maskulinoa. Hauek guztiak izen generikoak dira eta oso balio-tsua izango zaizkigu hizkera sexista edo androzentrista ekidin orduko.

Hona hemen generiko batzuen adibideak, genero femenino eta maskulinodunak, pertsona bakarra edo pertsona multzoa barne hartzen dituztenak:

	<b>Genero femeninoa</b>	<b>Genero maskulinoa</b>
<b>Pertsona bakarra</b>	<i>Persona</i> <i>Criatura</i> <i>Victima</i> <i>Pareja</i> <i>Personalidad</i>	<i>Ser / ser humano</i> <i>Personaje</i> <i>Feto</i> <i>Cadáver</i> <i>Bebé</i>
<b>Pertsona multzoa</b>	<i>Gente</i> <i>Población</i> <i>Humanidad</i> <i>Ciudadanía</i> <i>Juventud</i> <i>Clientela</i> <i>Sociedad</i> <i>Militancia</i> <i>Clase obrera</i> <i>Plantilla</i> <i>Familia</i> <i>Vecindad</i> <i>Judicatura</i> <i>Afiliación</i>	<i>Empresariado</i> <i>Personal</i> <i>Profesorado</i> <i>Alumnado</i> <i>Vecindario</i> <i>Funcionariado</i> <i>Electorado</i> <i>Voluntariado</i> <i>Colectivo</i> <i>Comité</i> <i>Público</i> <i>Gentío</i> <i>Pueblo</i>

Berba hauek guztiak genero gramatikal bakarrekoak dira eta horrelaxe erabili beharrekoak kasu guzti-guztietan: beti izango da “una persona” eta ez “\*un persona”, “el cadáver” eta ez “\*la cadáver”, “la militancia” eta “el voluntariado”, e.a. Eta ez gure korpuseko adibide batean aurkitu dugun bezala “\*los y las personas”; nahiz eta artikulua horren egi-leak oso borondate onez jokatu izana, esapidea ez da batere zuzena.

Beste termino batzuek lehen begiratu batean hauen oso antzekoak eman dezakete, esan nahi baita, genero aldakirik ez daukaten berbak. Badaude hitz asko berdin esaten direnak andrazkoontzat eta gizonezkoentzat, hala ere, artikulua edo adjektiboa gehitzen diegunean, azken hauek bai hartzen dutela genero aldakia sexuaren arabera. Hona hemen zenbait adibide gure sindikatuaren testuetatik ateratakoak:

*"LAB se pregunta si son éstos **los dirigentes** que se supone..."*

*"asisten **los responsables** del sindicato de la zona"*

*"las necesidades de **los participantes**"*

*"qué van a hacer **los demás**"*

*"**los mayores** de 50 años"*

*"**Los profesionales** de los servicios de prevención"*

*"el 24,4 de **los pacientes** espera entre 1 y 3 meses"*

*"trenes fantasma que ni **el maquinista** sabe a dónde van"*

*"compuesta por **un representante** de cada sindicato"*

*"en esta represión les ayudan **unos nacionalistas** "light" de pose digna"*

*"durante años **los ecologistas** han defendido que no existe ninguna dosis de radiación suficientemente segura"*

*"operación quirúrgica de **un familiar**"*

*"la información es una de las mercancías más atractivas para **los capitalistas**"*

*"aunque muchos de **los fascistas** de entonces aparezcan hoy reciclados como **demócratas**"*

Hitz hauek guztiek ez daukate berez genero aldakirik: "dirigente", baina ez dago ez "\*dirigento" ez "\*dirigentarik". Arazoa da zerbait gehitzen diogunean, artikulua, esate baterako. Adibide hauetan guztietan maskulino hutsean agertu izan zaizkigu honelako terminoak: "los participantes", "los demás", "el maquinista", "un representante", "unos nacionalistas"... Errazago jausten da jokabide honetan honelako hitzekin, genero aldakiak daukatenekin baino. Honela, hizkera sexista ez erabiltzea ondo jagoten zuten testu pare batetik honelako adibideak atera ditugu:

*"las organizaciones que cuentan con un mínimo de un 10% de **representantes** en la empresa, **obtenidos** en las elecciones inmediatamente anteriores"*

*"Remitir copia del acta de escrutinio a: interventores/as, empresario/a y **representantes electos**"*

"Representantes" berba daukagu adibide bietan. Lehenbizikoan hitza agertzen den perpausean ez dago arazorik, ez artikulurik ez izenondorik ez doalako alboan, baina ondoko perpausean "obtenidos" azaldu bezain pronto maskulinizatu egiten da berez aldakirik ez daukan "representantes" horrek. Bigarren adibidea ere adierazgarria da, aurreko izen bietan marra bidez emakumeen presentzia bermatu nahi bada ere, "electos" izenondoa ahaztu antzean gelditu da.

Gaztelerazko testuetan sartzen diren euskarazko terminoekin ere nahiko arrunta da maskulinoa baino ez islatzea. Euskaraz ez daukagu genero aldakirik, baina gaztelerazko testu baten barruan erabiltzen ditugunean artikulua edo izenondoak edo bestelako partikularen batek lagunduta erabiltzen ditugu normalean. Honelako kasuetan badirudi errazagoa izaten dela femeninoa ahaztea.

*"**muchos abertzales** que les dieron su voto"*

*"**muchos miles de votantes abertzales**"*

*"**los arrantzales embarcados**"*

*"no hay personal preparado para atender a **los niños euskaldunes**"*

Sexua eta generoa bide ezberdinetatik doaz. Sexua biologiari dagokio, generoa kulturari. Maskulinoak eta femeninoak momentu zehatz batean eta kultura zehatz batean jendarteak gizonezkoaren edo emakumezkoaren propietzat jotzen duena adierazten dute. Hizkuntzan ere gauzak ez dira sexuaren arabera antolatzen, generoaren arabera baino, baina, aspaldi esan bezala, honek gure pentsamendua eta iruditeria moldatzen ditu. Esaterako, "tenedor" objektuak ez dauka sexu zehatzik, baina "tenedor" terminoa genero maskulinoduna da eta, era berean, "cuchara" objektuak ez dauka sexu femeninoarik, baina "cuchara" terminoa genero femeninoaduna da. Ikerketa batean ondoko esperimendu hau egin zen: ume erdaldun zenbaiti goilara eta sardeska marrazteko eskatu zieten. Umeeek goilara neska moduan eta sardeska mutil moduan irudikatu zituzten. Hau da, berez sexurik ez daukaten objektuei genero linguistikoaren arabera dagokiena ezarri zieten.

Esan bezala, sexu-ezberdintasuna biologikoa da eta, hortaz, egituraketa semiotikoa baino lehenagokoa. Emea eta arra "emakume" eta "gizon" bihurtu dira errepresentazio sistema konplexu batean sartu heinean. Pausu sozial eta kultural haxe da sexutik generorako aldaketa azaltzen duena.

Genero gramatikalarekin ere antzera gertatzen da: sexutik -biologiko eta naturala- generora pasatzen da prozesu semiotiko eta linguistikoen bitartez, adieraziak eraiki ahala.

Gramatikari askorentzat generoa kategoria gramatikal hutsa da. Honela, teoria linguistikoak generoaren kontua komunztadura egiteko zerbait mekaniko antzean aurkeztu izan digu, maskulinoa sexu bietarako erabiltzea zerbait natural eta funtzionala dela esan izan digu. Esan gabe doa oraintsu arte gramatikariak zein sexutakoak izan diren eta hizkuntzalariok zein sexutako gramatikarien teoriak ikasi ditugun.

Baina generoa ez da kontu gramatikal hutsa, semantikoa ere bada. Zer esan nahi du honek? genero gramatikaren atzean esanahia ere badagoela, hau da, femenino eta maskulinoa ez direla konbentzio hutsak, baizik eta sinbolismoa ere badakartela eurekin batera. Ez da zerbait arbitrarioa.

*"... en todas las lenguas se encuentra una tendencia a llenar de simbolizaciones sexuales los elementos naturales de la experiencia. Las estructuras lingüísticas se utilizan para dar una base figurativa a este hecho y de tal forma que las representaciones simbólicas tengan una base concreta.*

*La diferencia sexual se configura no como accidente, y tampoco como mero dato material, biológico, sino como elemento ya significativo, como una de las categorías que fundan nuestra percepción y representación del mundo. Sólo imaginando la oposición sexual como un elemento de categoría de nuestra experiencia podemos explicarnos su difundida presencia dentro del lenguaje, la necesidad que el ser humano parece que siempre ha tenido de sexualizar la naturaleza, de cargarla de significados simbólicos sexuales. Si la diferencia sexual es una categoría de nuestra percepción del mundo, esto significa que es algo cualitativamente diferente desde un puro hecho empírico, es más bien algo que funda la percepción empírica y, por así decirlo, la precede. Sólo como esquema categórico de nuestra experiencia, la oposición sexual se configura después de la estructura lingüística, bajo forma de género gramatical. Pero esta configuración no es neutra y casual, refleja ya una colocación previa de lo femenino en el universo simbólico"<sup>9</sup>.*

<sup>9</sup> VIOLI, Patrizia, *El infinito singular*, Madrid, Cátedra, 1991. 62. or.

## 2.5. Maskulino generikoak

Gazteleraz maskulinoa markatua ez ei den generoa da eta erabilera bi dauzka:

- 1) **Balio zehatza:** gizonetzoei baino ez die erreferentzia egiten.
- 2) **Balio generikoa:** emakumezkoak ere izendatzeko erabiltzen da.

Balio bikoitz honen aurrean, femeninoak erabilera bakarra dauka (erabilera edo balio zehatza, hain zuzen), hau da, emakumezkoak besterik ez aipatzeko erabili behar da beti. Talde baten barruan denak andrazkoak izanda, gizonetzko bakar bat balego, genero maskulinoa erabili beharko litzateke. Horrexegatik esaten da balio errestriktiboa daukala.

Zoritarrez, horrelaxe da eta honek muga batzuk ipintzen dizkigu. Esaterako, ezingo genuke femeninoa balio generikoz erabili, mezua ulertezina litzatekeelako. Esan nahi dena da hizkera androzentrista ekiditzeko beti ere arau gramatikaletara mugatu beharko garela -hizkuntza eratzen duten arauak, ez akademiek inposatzen dituztenak-, baina arau horiek behar dugun erara erabili ahal izango ditugu eta erabili beharko ditugu, inolako duda barik.

Hala ere, gramatikalki gauzak horrela badaude ere, eta hauxe da garrantzitsuena maskulino generikoen inguruan gabiltzanean, hau ez da kontu inozentea:

Hala ere, azken konponbide honek egokia dirudi beste espresio baterako, "una" edo "uno" delakorako, hain zuzen. Arazoa txikiagoa izango litzateke, "una"/"uno" berez singularra delako eta, oro har, idazten duen pertsonari baino ez dagokiolako.

*Cuando **una** ve cosas así...*

**Una** no entiende cómo puede ser que...

Honelakoak, azken batez, "yo" pertsona azaltzeko bestelako modua baino ez dira: "cuando yo veo cosas así", "yo no entiendo cómo puede ser que" da esan nahi duguna. Horrexegatik ez dugu erabilera hau "una"/"uno" agertzen diren beste batzuekin nahastu behar: "cada una"/"cada uno" eta abarrak, alegia. Azken hauek pluralari, taldeari, egiten baitiote erreferentzia. Azken kasuotan, proposatzen diren beste baliabideetan aurkitu beharko genuke konpontzeko modua: bikoizketa, inpertsonaltasuna, ezabaketa, ordezkapena...

*Es necesaria una profunda revisión de la utilización de las horas sindicales a las que tiene derecho **cada una y cada uno**.*

*Es necesaria una profunda revisión de la utilización de las horas sindicales a las que **se tiene derecho**.*

*Es necesaria una profunda revisión de la utilización de las horas sindicales a las que tiene derecho **tienen derecho los delegados y delegadas**.*

*Hay que subrayar que todos nuestros cuadros sindicales, **cada uno o cada una** en función de la responsabilidad que asume, necesitan unos niveles formativos ideológicos y técnicos adecuados.*

*Hay que subrayar que todos nuestros cuadros sindicales, **o** en función de la responsabilidad que **asumen**, necesitan unos niveles formativos ideológicos y técnicos adecuados.*

*Hay que subrayar que todos nuestros cuadros sindicales, **o** en función de la responsabilidad que **se asume**, necesitan unos niveles formativos ideológicos y técnicos adecuados.*

*Hay que subrayar que todos nuestros cuadros sindicales, **o** en función de cada responsabilidad **o**, necesitan unos niveles formativos ideológicos y técnicos adecuados.*

## 6. Femeninoa eta maskulinoa txandaka

Maskulinozko forma ez ezik, femeninozkoa ere sexu bietarako generiko moduan erabiltzean datza formula hau. Autore gutxi erabili izan dute eta, izan ere, badaude arrazoiak geure idazkietan guk ere ez erabiltzeko.

Gramatika arauak elkarri ulertu ahal izateko konbentzioak baino ez dira. Hizkuntza jendarteak erabili eta garatu egiten du, hala ere, erabilera anitzen artean arau bilakatzen direnak ez dagozkie jendarte-multzo edo estrato guztiei. Hizkuntza arazoak ere, mundu honetako beste hainbat kontu bezalaxe, botere arazoak baino ez dira: boterea daukanak ezartzen du erabilera modua. Horrexegatik arauak ere, neurri batean behintzat, kontzienteki<sup>13</sup> aldagarriak dira, batez ere komunikabideen garai honetan. Esan nahi baita, geure esku ere badagoela hizkuntza erabilera moldatzea, gramatika liburukoteetan hazten diren gauza "sokratuak" edo aldaezinak ez direlako.

Hala eta guztiz ere, gogoan beti izan behar dugun irizpiderik nagusia komunikazio gaitasuna da. Hau da, hizkuntza erabiltzen badugu, komunikatzeko izaten da (edukinen komunikazioarekin batera beste hainbat gauza komunikatzen badira ere) eta hauxe da sekula oztopatu ezin duguna. Onartu beharra daukagu, beraz, femenino-maskulino-generiko arau hauetan femeninoa bera bakarrik ez dela generiko moduan atzematen eta horrela erabiltzeak nahaste eta okerrera eraman gaitzakeela. Honek ez du esan nahi ezingo dugunik sekula erabili, ondoren ikusiko dugunez, zenbait kasutan baliogarria izan daitekeelako.

Aurrera jarraitu baino lehen, korpusean jaso dugun kasu berezi bat aipatu behar dugu, "Técnicas de expresión escrita" ikastaroan ageri zaiguna. Argitalpen honen sarreran zera adierazten da espreski:

*"El tratamiento del enfoque de género es una preocupación constante [...] y ha estado presente tanto en el diseño del curso como en la impartición del mismo. En este sentido, se ha optado por la utilización de sustantivos y adjetivos neutros para no sobrecargar el texto"*

Hala eta guztiz ere, testuan aurrera joan ahala, "sustantivos y adjetivos neutros" espresioaren atzean ez neutrorik ez generikorik ez dagoela egiaztatzen dugu. Izan ere, ikastaro honen orrialdeetatik zehar topatzen duguna zera da, maskulino eta femenino bikoizketa batzuetaz gain, femenino eta maskulinoaren txandaketa hutsa. Hau da, zenbait kasutan maskulinoa baino ez da erabiltzen genero biak adierazteko, eta beste batzuetan gauza bera egiten da baina genero femeninoarekin. Ikus ditzagun adibide batzuk:

### Femeninoaren erabilera:

*Se precisará, además, conocer cuáles son los grupos formales e informales a los que pertenece la mayoría de **las lectoras**, pues de esa manera, se estará en condiciones de deducir cuáles son sus valores, creencias y opiniones*

<sup>13</sup> Inkontzienteki ere aldatzen dira hizkuntzak. Hizkuntzek bilakaera "naturala" izaten dute, analogiarantz edo diferentziarantz mugitzen dira egiturak denboraren poderioz, ezaugarri berezi batzuen arabera hizkuntza bakoitzean.

Será de ayuda para **la lectora** a la hora de orientar sus expectativas en la dirección adecuada

Una explicación demasiado vaga puede no producir efecto argumentativo alguno, con lo que no se acaba de entender la intención comunicativa de **la autora**

Ambas funciones se intentan realizar provocando en **la lectora** un determinado estado de ánimo, actitud, opinión, creencia o percepción

Si en un escrito aparece información no pertinente, se dificulta la interpretación, ya que **la lectora** intenta en vano encontrar la conexión entre las ideas expresadas

### Maskulinoaren erabilera:

Ningún texto puede reflejar todo lo que **el autor** sabe en relación con un tema que ha estudiado a fondo

Si se destina a **un lector experto** o bien a **uno que** desconoce por completo el tema

Debe recogerse información de aquellas fuentes que mayor solvencia y prestigio (experiencia y/o conocimiento de **sus autores**) ofrezcan

Consiste en el intercambio de mensajes entre dos o más hablantes que se alternan en las funciones de **emisor y receptor**

**Algunos especialistas** han sugerido una comparación muy clarificadora al relacionar el funcionamiento textual de los conectores con las señales de tráfico

Irtenbide modu honek, ageri denez, ez ditu sexu biak batzen ez kasu batean ez bestean. Honetaz aparte, femeninoak eta maskulinoak zenbatzen baditugu, askozaz gehiago dira testuan zehar maskulinoak femeninoak baino, eta termino ezberdin gehiagori aplikatuak. Gauza normala, beste aldetik, idazten ari garela, nahi eta nahi ez maskulinora jotzen baitugu generikoa adierazi nahi dugunean. Lehen aipatu bezala, maskulinoa da denon kontzientzia linguistikoa funtzio hori betetzen duena eta ez femeninoa. Borondate onez gura izan arren, hain erraz aldatu ezin den errealitatea da.

Gainera, egoera nahasgarriagoa da esaldi berean erabilera biak agertzen baldin badira. Kasu honetan bai ez dagoela batere argi zeintzuk diren adierazitako pertsonak:

*El resultado de esta omisión suele ser un texto desorganizado en el que las ideas se exponen en el orden en que llegan a la mente de **la autora**; un escrito que no está adaptado a las expectativas **del lector** (al que le resultará demasiado trivial...)*

*Construir un texto sin meditar sobre la relación que se establecerá entre **el escritor** y **sus lectores** es casi tan arriesgado como acudir a una cita a ciegas*

**Una escritora eficiente** *no desea que su lector tenga que detenerse en cada encrucijada posible de relaciones oracionales*

Argi dago beste konponbide batzuetara jo beharko genukeela androzentrismoa ekiditeko. Adibide hauetako batzuk dagoeneko agertu dira aurreko puntuetan. gauza bera egin beharko genuke sortzen zaigun arazo bakoitzarekin.

Hala ere, eta ikastaro honen kasu berezia albora utzita, egia da femenino eta maskulinoaren txandaketa hau zenbait kasutan erabili genezakeela: batez ere konponbide posible bakarra bikoizketa denean eta, azken hau erabiliz gero, testua larregi astuntzeko arriskuan gaudenean. Honelakoak lirateke, batik bat, izen zerrendak.

Gure testuetan gehienetan agertuko zaizkigun izen zerrendak ogibideenak izango dira. Lanpostu ezberdinak aipatzen ditugunean, oposaketa bati buruzko idazkietan, e.a. orduantxe erabili beharko genuke txandaketa hau, beti ere zerrenda luzeetan, termino pare baterako hobe delako genero biak agertzea edota biak batzen dituzten izen generikoak erabiltzea.

Beste alde batetik, konponbide hau hautatzen dugunetan, kontu handiz ibili behar gara rol eta estereotipo femenino eta maskulinoak ekidin behar direlako. Hau da, imajina dezagun honelako zerrenda daukagula aurrean eta femenino eta maskulinoa txandakatzea aukeratzen dugula hizkera sexista izan ez dadin:

*Médicos, enfermeros, celadores, cocineros, limpiadores, conductores, ingenieros técnicos...*

Ondoko izen hauek femeninoz ipintzen baditugu, hizkera sexistan baino sexismo hutsean jausiko ginateke:

*Médicas, enfermeras, celadoras, cocineras, limpiadoras, conductoras, ingenieras técnicas...*

Beraz, askoz hobeto hurrengo beste hau:

*Médicas, enfermeros, celadoras, cocineros, limpiadores, conductoras, ingenieras técnicas...*





# Txostena

## 7. Barraren erabilera (/) eta @ zeinua

Idazmolde ez androzentriko edo ez sexista erabiltzea beharrezkoa zela konturatu ginenean eta bide horretatik abiatu ginen lehenbiziko momentuan barrak oso baliabide usua izan ziren. Garai hartan premia honen berri emateko eta andrazkook ere testuetan existitu eta agertu nahi dugula munduari erakusteko baliotsuak izan ziren. Hala eta guztiz ere, gaur egun ez da honezkero konponbiderik erabilieneza gomendagarriena ere, zeren eta barraren erabilerak hainbat oztopo dakartza berarekin batera (@ direlako horiek bezalaxe):

1. Estetikoki itsusiak dira
2. Testu batean barrak agertzen direnean, irakurketa isila zaila izaten da eta irakurketa hori ozen egiten badugu, ia ezinezkoa.
3. Normalean, gizonetzkoak izaten dira agertzen direnak eta andrazkooi leku subsidiarioa geratzen zaigu barra ahoskaezin horren atzean.

Gainera, geure korpuseko adibideetan egiazta dezakegunez, barra erabiltzen denetan, esaldiko beste elementuekiko komuntzadura beti egiten da maskulinoz, beraz konponbide honek gutxitan konpontzen du ezer:

*Quedan 5 **trabajadores/as**, a quienes teniendo la desvinculación concedida, la empresa **los tiene retenidos***

*La negociación ha estado condicionada por la decisión política de congelar los salarios de **los empleados/as públicos** de forma unilateral*

*Dejando **abandonados** a su suerte (al convenio estatal, con toda probabilidad) a **los trabajadores/as** de las pequeñas empresas*

Hala ere, honek ez du esan nahi ezingo dugunik sekula barrarik erabili, baina bai testuinguru zehatz batzuetarako bakarrik utzi beharko ditugula.

Imprimakietan edo formularioetan erabil ditzakegu barrak, baina beti ere bestelako irtenbiderik ez dagoenean. Esate baterako, hain arruntak diren: **D./Dñ., Jn./And.** eta horrelakoak, erraz ekidingo ditugu **“Izena/nombre”** eta enparauak ipiniz gero.

Testu garatuetan beti izango da hobe bestelako irtenbideren bat bilatzea, baina zerrendetan eta horrelakoetan baliogarria izan daiteke barra:

*Para un total de 22 puestos de trabajo: 4 de **administrativa/o**, 1 de **abogada/o**, 2 asistentes sociales, 5 ayudantes de biblioteca, 1 ordenanza, 1 **profesor/a** de música*

Kasu honetan femenino-maskulino eta maskulino-femenino ordena txandaka erabili dugu zerrendan bertan.

Hala ere, zerrenda bat baino gehiago agertzen bazaizkigu testuetan zerrenda bakoitzean orden bat erabil genezake:

*Centro 1 = 40 trabajadores/as (edo trabajadoras/es)*

*Centro 2 = 44 trabajadores/as (edo trabajadoras/es)*

*Centro 3 = 35 trabajadores/as (edo trabajadoras/es)*

**Farmacéutica/o**

**Odontólogo/a**

**Psicólogo/a**

**Física/o**

**Ingeniera/o**

**Informático/a**

**Técnico/a superior**

**Bibliotecario/a**

**Enfermero/a**

Izan ere, barra erabiltzen dugunetan ordena edo hurrenkera ere kontuan eduki beharko dugu. Gure korpusetik barraren erabilera atera dugu eta hauxe da aurkitutakoa:

Barraren erabilera: 384 sintagma

Maskulinoa / femeninoa (o/a, r/a, os/as, es/as): 374

Femeninoa / maskulinoa (a/o, as/os, as/es): 10

Hau da ia-ia guztietan maskulinoa femeninoaren aurretik doa. Ordenaren inguruan zabalago aritu gara beste kapitulu batean, hortaz, ez dugu bertan esandakoa errepikatuko. Gure gomendioa: barrak ahalik eta gutxien erabiltzea, baina erabili behar direnean, zerredetan eta abarretan, femeninoa-maskulinoa ordena hobestu dadila.

Hala ere, kontsonantez amaitzen direnean gure aholkua da maskulino-femenino ordenaz idaztea, "-a" gehitzea nahikoa baita eta, beharbada, horrela hobeto irakurtzen delako:

<b>trabajador/a,</b>	<i>eta ez</i>	<i>trabajadora/or</i>
<b>autor/a</b>	<i>eta ez</i>	<i>autora/or</i>
<b>profesor/a</b>	<i>eta ez</i>	<i>profesora/or</i>
<b>oficial/a</b>	<i>eta ez</i>	<i>oficiala/al</i>
<b>albañil/a</b>	<i>eta ez</i>	<i>albañila/il</i>

@ zeinua, barrak ez bezala, beti baztertu beharko genuke, hainbat arrazoiengatik:

- 1) estetikoki itsusia da
- 2) ez da inongo zeinu linguistikoa
- 3) ezin da ahoskatu
- 4) arazoak ematen ditu ordenadoreetan (programa askok helbide elektroniko moduan irakurtzen dute berba bat eta zuzenean irekitzen dute posta.)

## 8. Femeninoa eta maskulinoa asimetriki erabiltzen direnean

Zertan datza hau? Genero biak asimetriki erabiltzeak zera esan nahi du, hauetako baten izaera gailentzen dela edo azpimarratzen dela, bestearekin horrelakorik egiten ez den bitartean. Jakina, gailentzen edo azpimarratzen den generoa normalean femeninoa izaten da. Hau ez da hizkuntza zehatz baten gramatika kontua, maskulino sasigenerikoen kasuan gertatzen den legez, baizik eta sexismo sintaktikoren modu bat. Esan nahi baita, hizkuntza guztietan gertatzen dela, gramatika arauak arau. Okerra adierazlea baino, adierazia da. Adibidez:

*El "chador" de las mujeres musulmanas / Emakume musulmanen "chador" a*



*El "chador" de las musulmanas / Musulmanen "chador" a*

Honekin ez dugu esan nahi lehenbiziko esaldia txarto esanda dagoenik, ez, gramatikala izan bada, baina "mujer" gehitzea gizonezkoen kasuan sekula edo ia inoiz egiten ez den erreduantzia da: "*El turbante de los musulmanes* esan ohi da" eta ez: "*El turbante de los hombres musulmanes*".

Euskaraz generoa ageri ez dela eta, norbaitek esan lezake honelako kasuetan beharrezkoa dela "emakume" berba gehitzea. hala ere, gizonezkoen erreferentzia egiteko, ondo baino hobeto onartuko genuke, euskaraz ere, oraintxe gazteleraz agertutako esaldia, "**musulmanen turbantea**", "**gizon musulmanen turbantea**" ipintzeko premiarik sentitu barik.

Horrela gertatzen da eta, egia esan, hauek bezalako erreduantzia edo puntualizazioak arruntagoak izan beharko lirateke gizonezkoen kasuan, maskulinoa generiko moduan erabiltzen den heinean, gizonezkoak soilik noiz aipatu nahi diren jakitea ezinezkoa suertatzen delako zenbaitetan. Andrazkoon kasuan - gazteleraz behintzat - ez dago problemarik, genero femeninoak gizonezkoen barne hartzen ez du eta. Korpusean aurkitu dugunez:

*Cependant, son action nuisible sur la fertilité des travailleurs masculins est moins connue*

*Sin embargo, es menos conocida su acción perjudicial sobre la fertilidad de los trabajadores varones*

*Aldiz, ez da horren ezaguna gizonezko langileengan duen eragina*

Honela, argi geratzen da gizonezkoen, eta bakarrik gizonen, kasua aipatu nahi dugula. Zer gertatuko litzateke puntualizazio hau egingo ez bagenu? Gazteleraz eta frantsesez maskulino plurala, ikusi dugunez, sexu biak batzeko erabili ohi da (trabajadores / travailleurs). Hauxe litzateke beste arrazoi bat hizkuntza androzentrikoa ez erabiltzeko, andrazkook ezkatutazeaz gain, zenbaitetan komunikazioa ilundu edo oztopatu dezakeelako. Euskaraz ere "langile" hitza sexu bietarako erabiltzen da. Euskaraz sexu bakar bati erreferentzia egin nahi bagenu, sexu hori nolabait azalarazi beharko genu-

ke, bai maskulinoa bai femeninoa balitz, euskaraz berez ez baitago genero markarik. Laburbildurik:

Emakumezkoak bakarrik aipatu nahi ditugunean:

*Gaztelera*: **las trabajadoras**

*Frantsesez*: **les travailleuses**

*Euskaraz*: **andrazko langileak**

Gizonezkoak bakarrik aipatu nahi ditugunean:

*Gaztelera*: **los trabajadores / los trabajadores varones**

*Frantsesez*: **les travailleurs / les travailleurs masculins**

*Euskaraz*: **gizonezko langileak**

Emakumezkoak eta gizonezkoak aipatu nahi ditugunean:

*Gaztelera*: **Las trabajadoras y trabajadores / los trabajadores y trabajadoras / las personas trabajadoras...**

*Frantsesez*: **les travailleuses et travailleurs / les travailleurs et travailleuses...**

*Euskaraz*: **langileak**

Bigarren kasuan (gizonezkoak bakarrik, alegia) erabil daitezela momentuz "los trabajadores varones" moduko espresioak, harik eta hizkera androzentrista geure testuetatik ezabatu arte, bederen. Orduan, nahaste arazorik ez dagoenean, genero maskulinoa sexu maskulinoa izendatzeko erabili ahal izango dugu.

Gure testuek ez dute asimetria fenomeno honetarako bide handirik zabaltzen, normalean talde zabalen inguruan egiten dugulako berba, non bai andrazkoak bai gizonezkoak barne dauden. Dena dela, adibideren bat topatu dugu, jazarpen sexuala hizpide den artikulu batek zera dakar:

**La chica** reaccionó oponiéndose a sus intenciones, a lo que **el hombre** no fue más allá

Asimetria modu hau (chica/hombre - neska/gizon) nahiko arrunta izaten da. Auskalo zergatik, baina "hombre" edo "gizon" hitza aipatzea badirudi gutxiago kostatzen zaigula "mujer" edo "andra/emakumea/emaztea" baino; esan liteke termino hori leundu behar dela edo ez dela polita edo ez dagoela ondo erabiltzea... Kasu honetan jazarpena jasan zuena andra gaztea zen, baina gaztea izan arren, ez zion andra izateari uzten, hau da, ez zen umea ezta neskatoa ere. Honelakoetan, beraz, gomendagarria da, eta gomendagarria baino esango nuke ezinbestekoa dela, beti simetrikoki erabiltzea eta andrazkook ere pertsona helduen moduan izendatzea, batez ere jazarpen sexuala bezalako gai latz eta serio batean.

Asimetria beste kasu bat suertatzen da askotan izen eta abizenekin. Sarriagotan izendatzen gaituzte androk izen hutsez edota izen eta abizenez. Askoz gutxiagotan abizenez edo geure karguaz bakarrik. Esan beharra dago pertsona

gehienen deiturak agertzen diren argitalpena "Iraultzen" dela eta benetan zoriontzekoa bertan nahiko ondo jagoten dela kontu hau. Izan ere, bai andrazkoon kasuan, bai gizonezkoenean lehenbiziko aipamena izen-abizenak (eta kargua edo) izaten da eta, handik aurrera, errepikatu behar denean, abizena izaten da izendatzeko modua. Dena dela, adibide hau topa dugu argazki-oin batean:

*Abajo, Isabel Pallarés junto al secretario general de LAB*

Egokiagoa litzateke bien karguak ipintzea edo bien izenak: "Isabel Pallarés junto a Rafa Díez" edo askoz hobe: "La secretaria general de I-CSC junto al secretario general de LAB", "Isabel Pallarés" izena besterik ez esanda, ezin dugu-lako jakin zein den pertsona hori, edonor izan liteke, eta testu osoa irakurri beharko genuke jakiteko.

Bestelako adibideak ere badauzkagu, beste argitalpen batzuetatik ateratakoak, esaterako:

*El Ministerio Fiscal pedía nada menos que 8 años de inhabilitación especial de empleo o cargo público para **Valeriano Hernández (trabajador de la Diputación en el Dpto. de Obras Públicas) y Zuriñe.***

Komentatu beharrik ere ez dago. Seriotasun apur bat, jaun andreok, Zuriñe horrek ez al dauka abizenik eta ez al da enplegatu edo kargu publikoa?.

Hurrengoa ere asimetria kasua izan liteke. Ondoko esaldi biak agertzen dira artikuluan berean:

*Nos llega la noticia de que **la fiscal** ha recurrido la sentencia  
**El abogado defensor, Ricardo Sanz,** pidió al tribunal...*

Egitura sektorialeko artikuluan zera aurkitzen dugu, testu osoan zehar ez da inolako konturekin ibiltzen hizkera androzentrikoa ekiditeko: "todos los afiliados", "los trabajadores", "todos", "150 trabajadores" e.a. Harrigarria da, ordea, zelan heltzen den momentu bat non "**l@s trabajadores/as**" espresioaren sorpresa ematen diguten. Zein da horren arrazoia? Argi eta garbi zein testuingurutan dagoen kokatuta:

*Si se cogieran las vacaciones en septiembre [...] estaríamos todo el mes de vacaciones y nos sobrarían 3 días [...] Creemos que es factible realizarlo y además es una demanda que siempre nos han recordado, especialmente **l@s trabajadores/as** que tienen hijos en edad escolar.*

Kasu honek ere ez dut uste komentario handirik behar duenik. Bakarrak gomutatzen dute andrazkook ere existitzen garela seme-alaben inguruan berba egiten dutenean.

Azken adibide bat emango dugu:

*Dentro de las diferentes categorías de inactividad destacan las labores del hogar (**en su mayoría mujeres**), jubilación (**hombres**) y estudiantes (**juventud**)*

Egia da etxeko lanetan aritzen diren gehienak andrazkoak direla, baina jubilatuta dauden guztiak ez dira gizonezkoak, emakumezko jubialtuak baino gehiago izan arren. Beraz, ("hombres") baino, honetan ere "(en su mayoría hombres)" esan beharko luke.

Asimetria fenomeno hau, jauzi semantikoa bezalaxe, arriskutsuagoa da androzentrismo gramatikal hutsa baino, forman ez baina edukinetan eragiten duelako, hain zuzen. Beraz, askozaz kontu handiagoz ibili beharko gara honelakorik ez egiteko gure testuetan.

# Txostena

## 9. Bibliografia aipua

Konbentzio akademikoek argi eta garbi, zehaztasun guztiez deskribatzen dute zelan egin behar diren bibliografia aipua. Kapitulu honetan, lehenengo eta behin, irizpide orokor batzuk emateko aprobetxatuko dugu; gero, lan honetan darabilgun gaiari helduko diogu bibliografia aipuei dagokienez.

Liburu baten aipua egiten dugunean formula bat baino gehiago dauzkagu esku, bi dira erabilienak, besteak gehienbat modu bi hauen gaineko aldaketa txikiak baino ez dira:

1. Autorearen abizena(k) eta izena, komaz (,) banandurik.
2. Liburuaren izenburua, letra etzanaz.
3. Liburua argitaratu zen hiria.
4. Argitaletxearen izena.
5. Argitaratu zen urtea (lehenbizikoaren osteko argitalpena bada, hau ere adierazi beharko litzateke).

Eta hau guztia komaz (,) banandurik. Adibidea:

LAKOFF, Robin, *El lenguaje y el lugar de la mujer*, Bartzelona, Editorial Hacer, 1995 (3. arg.)

Abizena edo abizenak dena maiuskulaz, minuskulaz edo bertsaletan idatzi ditzakegu. Honetaz gain, bibliografia aipua egiteko modu hau erabiltzen duten autore batzuek ezberdintasun pare batekin egiten dute, hala nola argitaletxearen eta hiruburuaren ordena eta puntu eta koma izenaren atzean. Dena dela, beti erabili beharko dugu modu berbera, beraz hobe bat ondo ikasi eta horixe erabili. Bibliografia zerrenda oso bat egiten dugunero, gomutatu abizenen arabera ordenatu behar direla obrak, alfabetikoki, jakina.

Hona hemen beste modu bat bibliografia aipua egiteko. hala ere, aurrekoa erabiliagoa da hau baino:

1. Autorearen abizena eta izena, komaz (,) banandurik.
2. Argitalpen urtea, parentesi ( ) artean.
3. Puntu bi (:)
4. Liburuaren izenburua letra etzanaz.
5. Liburua argitaratu zen hiria.
6. Argitaletxearen izena.

Azken hiru elementuak komaz (,) banandurik. Adibidea:

CAMERON, Deborah (1990): *Feminism and linguistic theory*, London, McMillan

Modu honetan ere autoretik autorera ezberdintasun txikiak topa ditzakegu.

Orain arte azaldu dugu zelan aipatu geure artikuluetarako erabili dugun liburu bat. Baina baliteke hainbat auto-

reren artikuluek osaturiko liburu edo aldizkaritik artikulua horietako bat atera izana. Orduan elementu bat gehiago sartu beharko genuke, letra normalez baina komatxo (" ") artean. Adibideak:

DEMORTE, Violeta, "Naturaleza y estereotipo: la polémica sobre un lenguaje femenino", *Nuevas perspectivas sobre la mujer*, Madril, Universidad Autónoma de Madrid, 1982.

MARTÍN ZORRAQUINO, M<sup>a</sup> Antonia, "Oralidad y escritura en el discurso femenino", *La lengua y los medios de comunicación*, Madril, Actas del Simposio Internacional, 1996ko martxoan (prentsan). 19-42 or.

IRASTORZA, Teresa, "Aitzin solas", BORDA, Itxaro, *Bestaldean*, Iruñea, Susa, 1991.

ITURBIDE MENDIETA, Amaia, "Aproximación a algunas poetas vascas contemporáneas", ZAVALA, Iris (koord.), *Breve historia feminista de la literatura en lengua castellana, gallega y vasca*, Bartzelona, Anthropos, 2000. (370. or.)

Beraz, lehenengoz artikuluauren autorea eta izenburua eta gero zein libururi dagokion artikulua hori. Liburuaren kasuan, baliteke argitaratzaile edo koordinatzaile orokorra egotea, orduan komenigarria da hori ere ipintzea, koordinatzaile horren izenean datorrelako edonongo fitxa bibliografikoetan. Hirugarren adibidean Itxaro Borda ez da koordinatzailea, idazlea baizik; aipatu duguna da bere liburuko sarrera, Tere Irastorzak idatzia. Honelakoetan ere ipini behar da. Beste batzuetan (lehenbiziko kasu bietan legez) liburuak batzuen artean daude osaturik eta ez du merezi izenik aipatzea, izenburuarekin nahikoa da.

Honekin amaitzeko, esan orrialdeak ere aipatu behar direla, aipuaren amaieran, adibideetan ikusten denez, eta puntu atzean. Batzuetan parentesi artean idatzi ohi dira. Orrialdeak aipatzea ezinbestekoa izango da orrialde-oinetan, hau da, aipamen zehatz bat egin dugunean. Liburuaren orokorrean erabili dugunean bibliografian zerrendatu beharko dugu. Kasu honetan ez da beharrezkoa orrialdeak zeintzuk izan diren aipatzea, dena dela, aukera eduki badaukagu.

Eta, hau guztia azaldu ondoren, zer dela eta bibliografia aipuak hizkuntza androzentrikoa ez erabiltzeko gomen-dioetan? Arrazoia sinplea da: konbentzio akademikoek esan ohi dute abizena(k) osorik idatzi beharra dagoela, baina izena, ostera, hasierako letrara murrizten da normalean.

Arestian ikusi genuen zelan abizen baten atzean normalean beti igartzen dugun gizonezkoaren presentzia eta oso gutxitan andrazkoarena (normalean andrazkoa izan badela dakigunean baino ez). Horrexegatik gure proposamena, eta kontu honetan aritzen diren autore guztien iritziarekin bat, izena ere ipini behar dugula da, bai bibliografia zerrendetan, bai testuan zehar autore zehatzen bat aipatzen dugunean. gainera, gogoan eduki "autor" hitzarekin gertatzen zena gure korpusean ("autor" berbarekin eta autoritadedun edozein pertsona izendatzen duten berbekin ere bai).

Hona hemen korpuseko adibide adierazgarria. Artikulu baten amaieran bibliografia zerrenda aurkitzen dugu, non ondoko izenak dauden, besteak beste:



Karjalainen, A.  
Virtanen, S.  
García, M.  
Kogevinas, M.  
Casal, A.  
Benavides, F.G.  
Benach, J.  
e.a.

Nork asmatu euren artean andrazkorik ote dagoen? Edo denak andrazkoak ote diren? Ezinezkoa da. Eta guk normalean pentsatuko duguna izango da abizen horien atzean gizonezko bana dagoela. Hau egiaztatzen duten ikerketak egin izan dira. Ez da harritzekoa, beraz, aipatutako bibliografia zerrenda horri dagokion artikuluan bertan honelako esaldiak topatu izana:

**Algunos autores** *incluyen como primer criterio de priorización...*

*Desde el gran respeto que nos merecen los autores de la propuesta...*

**Otros autores** *nos señalan algunos de los mayores inconvenientes de estos valores*

**Los autores franceses** *no lo presuponen*

65

Bibliografia zerrenda horretako izen horiek guztiak geure kontura miatu eta aurkitu genituenen artean ondoak behintzat badaude: Montserrat, Amparo, Eva, Concepción. Hauek guztiak "autoras" beraz. Gainera, zenbait argitalpen batzuen artean eginda daudenez, suposatzea da horietatik guztietatik batzuk andrazkoak direla. Hortaz, argi gertzen da "autoras" egon badaudela. Orain falta duguna da abizen baten atzean ez ezkutatzea.

Aukera berdintasun plana

66

# 10. Femenino eta maskulinoaren ordena

Orain arte aritu izan gara hizkeraren bitartez andrazkook ez ezkututzen edo ez baztertzen ahaleginak egiten. Hala ere, idazkera androzentrikoak beste modu batez ere azalarazten du emakumeen menpekotasuna edo subsidiarietatea: ordenean, hain zuzen.

Kasu honetan berdintasunik eza berbak esaldian kokatzeko hurrenkeran datza. Ohikoena da, eta gainera ematen du naturalena ere badela, maskulino femeninoaren aurretik kokatzea, hau da "niños y niñas" esatea eta ez alderantziz. Eta, harrigarria bada ere, emakumezkoak diskurtsoan agertaraztea helburua denean eta, horretarako, izenak bikoizten direnean ere horrela egiten da gehienetan.

*"Las niñas, más precoces en el uso del lenguaje que los niños, descubren antes que ellos que cuando los adultos se refieren a un colectivo infantil que incluye individuos de ambos sexos, lo hacen casi siempre usando únicamente la forma masculina, en ningún caso la femenina y muy pocas veces las dos. Cuando esto último sucede, invariablemente va a ser la masculina la que ocupe el primer lugar en la frase. la maestra dirá: "los niños y las niñas que vayan a la excursión..." , "que venga un niño y una niña".*

*[...] Este orden es sistemático en frases como : "luis y josefa comen pan", "Carlos y María irán de paseo", destinadas al aprendizaje de la lectura, tantas veces repetida que niñas y niños acaban aprendiendo de memoria"<sup>14</sup>*

Hizkera androzentristaren kasuan esan genezake faktoreen ordenak bai aldatzen duela emaitza.

Lehenengo eta behin ikusiko ditugu gure korpuseko adibideen nondik norakoak:

### **Substantibo bikoizketak:**

Maskulinoa + femeninoa: 227 (*afiliados y afiliadas, hombres y mujeres...*)

Femeninoa + maskulinoa: 106 (*trabajadoras y trabajadores, delegadas y delegados...*)

Femeninoa + maskulinoa + adj. maskulinoa: 26 (*las trabajadoras y trabajadores vascos...*)

Maskulinoa + femeninoa + adj. femeninoa: 9 (*los trabajadores y trabajadoras afectadas...*)

Maskulinoa + femeninoa + adj. maskulinoa: 7 (*represaliados y represaliadas vascos...*)

Ikusten dugunez, askoz arruntagoa da maskulinoa femeninoa baino lehen kokatzea (227 kasu, 106 kasuren aurrean). Bestela gertatzen da bikote honi adjetibo bat gehitu behar diogunean. Hemen hiru jokabide ezberdin aurkitu ditugu:

<sup>14</sup> Moreno, Montserrat, *Cómo se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela*, Bartzelona, Icaria, 1993 (2. arg.). 32 or.

\* Femeninoa + maskulinoa + adj. maskulinoa. Gehienetan aurkitu duguna. Esan beharra dago sindikatuan hizkuntz protokolo hau gauzatu baino lehenago jadanik bultzatzen zela formula hau.

\* Maskulinoa + femeninoa + adj. femeninoa / maskulinoa + femeninoa + adj. maskulinoa. Gure sindikatuaren testuetan aurreko hurrenkera baino gutxiagotan aurkitu baditugu ere, esan beharra dago askotan entzuten eta irakurtzen direla hainbat diskurtso eta komunikabideetan. Baina, zergatik erabiltzen dira honelako hurrenkerak, argi eta garbi belarri txarto jotzen badute? Maskulinoa beti aurretik joan behar dela ezartzen duen orden androzentrikoaren ohituragatik, zalantzarik gabe

Adjektiboak ere bikoiztuko bagenitu ("las trabajadoras vascas y los trabajadores vascos" edo "los trabajadores vascos y las trabajadoras vascas") ez genuke arazorik edukiko, baina aukera hau lar errepikakorra suertatzen da eta hobereena litzateke honelakoetan adjektibo bakarra erabiltzea izen bikote osoarentzat.

Guk lehenbiziko ereduak beti erabil dadila gomendatuko dugu. Izan ere, adjektiboak substantibo biak hartu behar ditu barne, eta genero biak barne hartzen dituen bakarra maskulinoa da. Honetaz gain komenigarria da adjektibo maskulino hau substantibo maskulinoaren albo-alboan joatea, esaldia arraro suerta ez dadin ("represaliados y represaliadas vascos" esapidearekin gertatzen den moduan).

#### **Artikulu bikoizketak:**

Femeninoa + maskulinoa + substantibo maskulinoa: 18 (*las y los vascos*)

Femeninoa + maskulinoa + substantibo komuna: 13 (*las y los sindicalistas*)

Maskulinoa + femeninoa + substantibo femeninoa: 4 (*del o la jefa de personal*)

Maskulinoa + femeninoa + substantibo komuna: 8 (*los y las jóvenes*)

Maskulinoa + femeninoa + substantibo maskulinoa: 1 (*\*el o la empresario*)

Bikoizten ditugun elementuak artikulua direnean jokabidea bestelakoa da: gehienetan lehenbiziz kokatzen den artikulua femeninoa da eta, honen ostean artikulua maskulinoa eta substantibo maskulinoa edo komuna (31 kasu, 12 kasuren aurrean). Zergatik gertatzen da hau, ba? Azken batez sintagma hauetan garrantzia hartzen duenak esplizituki idazten den substantiboa da eta hori normalean maskulinoa izaten da. Hau da, femeninoak pisu gutxiago dauka "las y las trabajadoras" esapidean, "los y las trabajadoras" esapidean baino.

Beraz, artikulua bikoizketetan hurrenkerak baino, idatziko dugun substantiboak dauka garrantzia. Hauexek dira gure gomendioak:

\* Orden biak nahastea testuetan. Baina ez ahaztu emakumezkoak ageriago izango garela artikulua bakarrik ez ezik, substantiboa ere idazten badugu: "los y las afiliadas", esaterako.

\* "del", "al" eta horrelakoak hobe da ez bikoiztea, baizik eta kontrazio biak eta substantibo biak idaztea: "de la jefa o el jefe de personal" edo "del jefe o la jefa de personal"

\* Idazten dugun substantiboa beti joan beharko da genero bereko artikulua albo-alboan: "\*el o la empresario" txarto eraturakotako sintagma da; "el o la empresaria" edo "la o el empresario" idatzi beharko genuke, beraz.

Euskarari dagokionez, hitz pare bat esan behar ditugu. Euskaraz badakigu hainbat substantibo-bikote daukagula: seme-alabak, senar-emazteak, aita-amak, maisu-maistra eta enparauak.

Lehenengo eta behin esan honelakoetan beti erabili behar direla bikoteak, denok dakigunez, baina ordenari dagokionez, fijatzen bagara beti da maskulinoa aurretik doana. Gure gomendioa da zenbait kasutan orden hori aldatzea: maistra-maisu edo ama-aitak erabiltzea, esaterako.

Aukera berdintasun plana

70

# Txostena

## 11. Jauzi semantikoa

Maskulinoa genero bietarako erabiltzeak bestelako arazoak ekar ditzake. Larriena **jauzi semantikoa** izenekoa da. Jauzi semantikoa ondoko honetan datza: maskulinoa testu batean erabiltzen da generikoa balitz moduan, baina heltzen da momentu bat non andrazkoak kategoria berezi moduan aipatzen diren edota gizonezkoen ezaugarriren bat azalarazten den. Beraz, denok generikotzat jotzen genituen maskulino horiek guztiak gizonezkoei baino ez zietela erreferentzia egiten egiaztatzen dugu. Ikus ditzagun adibide batzuk (gure korpusetik kanpokoak):

*Abentura liburuen inguruan zera aurkitu dugu: "El adolescente [...] emprende un trayecto rico en peripecias, dificultades y tentaciones; debe superar sucesivas pruebas y, finalmente, vencer a un monstruo o, más generalmente, afrontar a la Muerte misma, al cabo, renace a una nueva vida, ya no natural, sino artificial, madura y de un rango delicadamente invulnerable"*

Momentura arte, maskulinoa benetan generikoa balitz, ulertu beharko genuke "el adolescente" horren atzean sexu bietako nerabeak daudela. Gainera, abentura liburuak sexu bietako nerabeek irakurtzen dituztela zalantz izpirik ere ez dago. Baina, testu berean haxe dio autoreak aurrerago:

*"El resultado del ritual/rito de iniciación puede servir a propósitos hondamente distintos y que puede ser tanto la virilidad como la resignación, el enriquecimiento o la aceptación de su finitud"*

Orain argi eta garbi gelditzen da autorea ez dituela nerabe guztiak kontuan hartu, zeren eta "virilidad" termino horrek gizonezkoei baio ez baitie erreferentzia egiten. Hau da, andrazkook bazterturik gaude, nerabetan ere ez dugu ezta abentura libururik irakurtzen, are gehiago, abentura liburuek ikaskizunik baldin badakarte, horiek gizonezkoentzat baino ez dira. Josten eta sukaldatzen ikastearekin nahikoa omen daukagu guk.

"Hombre" berba askotan <ser humano> edo <persona> adierazteko erabiltzen dela esan ohi digute, androk ere hitz horretan sartzen garela eta kontuan hartuak garela.

Bere sasoian latinez "homo" generikoa bazen, eta "vir" gizonentzako terminoa, hizkuntza erromantzeetan ikusi dugu zelan oposizio hau ezabatu den eta adierazi biak batu diren adierazle bakar baten pean: gazteleraz "hombre".

Honela, maskulinoak eta generikoak bat egin zuten berba berean, baina semantikoki anbigua da, esanahi bi dauzkalako. "Hombre" ez litzateke benetako generikoa izango, sasi-generikoa baino. Zergatik hau? Berba egiten duenak "hombre" ahoskatzen duenean <género humano> esanahiari ez ezik <individuo masculino> espezifikoa ere lotzen die-lako. Bestela, "el hombre amamanta a sus pequeños" bezalako esaldiak ez lirateke semantikoki inkongruente gertatuko.

Ikus dezagun zer dioen Marcela Lagardek honen inguruan:

*“El hombre universal no es una construcción lingüística sino filosófica y política, con la que se subsume la categoría mujer en la categoría hombre, y se desaparecen todos sus contenidos de especificidad humana. Se construye en la historia, en las mitologías, las religiones, a través de las políticas de dominio y sus ideologías cotidianas. Los procesos que traicionan la pluralidad del castellano se nombran en esta lengua cultura patriarcal. No nos identificamos con ella; por eso con la -a, con las otras formas de femenino y con la evocación de lo femenino hacemos referencia a nuestro género<sup>15</sup>”*

Honen adibide argia dira historia liburuak, gogoratu baino ez daukazue eskolan zelan kontatzen ziguten zibilizazioen historia; hala ere, ondo begiratzuz gero, gizonezkoen historia baino ez ziguten kontatzen, androk eta androk egiten genuena ez baitzen inondik ageri.

“Hombre” berbaren adibide bat ikusiko dugu oraintxe, historia liburu batetik ez, baina iritzi artikulua batetik ateratakoa:

*“Desde época muy primitiva el hombre construía sus viviendas sobre las ramas de los árboles y cada día buscaba, sin saberlo, mejor comodidad y por fuerza del sentido común aplicaba los “boquetes”, que luego se llamarían ventanas y que avanzando más en el tiempo, los más amplios se llamarían balcones.*

*[...] A tal magnitud ha avanzado esta palabra que, en lo místico, se dice: Dios, el Arquitecto del Universo; sobre la mujer amada, la arquitecta de mis ilusiones... en definitiva, el hombre venció la fiereza de las selvas, montañas y humedales...*

Hau da, “hombre” berba horren atzean gizonak baino ez daude (edo hobeto esanda, gizon heterosexualak eta, akaso, lesbianak ere bai, zeren eta “mujer amada” bat daukatenak baino ez dira ageri).

Jauzi semantikoa ez da gramatika kontua eta, gazteleraz ez ezik, euskaraz ere gertatzen da. Izan ere, euskaraz genero markarik ez dagoenez gero, substantibo eta adjektibo guztien atzean gizonezkoak zein emakumezkoak badirela suposa genezake, harik eta esplizituki aipatu eta aurreko guztia guretzat ez zela konturatu arte. Honela gertatzen da gure korpusetik atera dugun adibide honetan:

*“Aurkeztutako egoera horrek, LABeko militante hauen iritzi, nolabait ere baldintzatu egin du langileen izaera, izan ere zuberotar gazte anitz Bordelera eta Parisera joan behar izan ziren eta laborarien emazteak, espainiol eta portugesekin batera, osatu zuten bertako langileria”*

Langile guztien -gizonezkoen eta emakumezkoen- izaera baldintzatu duela pentsatzen dugu, Bordelera eta Parisera neskak eta mutilak joan behar izan direla pentsatzen dugu... baina ez, gizonak besterik ez, gizonak eta ezkonduak, zeren eta euren emazteak bertan gelditu behar izan ziren. Esaldi honek adierazten diguna, beraz, hau da, momentura

---

<sup>15</sup> LAGARDE, Marcela, *El castellano, una lengua de caballeros*, [http://www.nodo50.org/mujeresred/marcela\\_lagarde-elcastellano.html](http://www.nodo50.org/mujeresred/marcela_lagarde-elcastellano.html)



arte Zuberoan gizonak baino ez zutela lan egiten eta gizonak behin alde eginda euren emazteak gelditu zirela bertan eta harrezkero hasi zirela lanean, momentura arte emakume langilerik egon ez balitz moduan.

Ikusten dugunez, jauzi semantikoa hizkuntzaren bitartez sexu bazterkeriari bide handia ematen dion fenomeno da, gure subkontzientean "gizon" eta "pertsona" kontzeptuak parekatzen dituelako. Hau da, horrelako esaldietan lehen begiratu batean ezerk ez digu atentziorik egiten, baina gura barik osotasuna ("pertsona") zati batek ordezkatzeko du ("gizonak") eta, hortaz, emakumea pertsona sailetik aldentuta moduan gelditzen da.



## 12. Miembra, “autoritadedunak”, “kritikatuak”, nazionalitateak eta ogibideak

### 12.1. Miembro-miembra

DRAera jotzen badugu “miembro” hitzaren bila, zera topatzen dugu zazpigarren sarreran: *“Individuo que forma parte de un conjunto, comunidad o cuerpo moral”*.

Egia da “miembra”rik ez dela inondik ageri, substantibo maskulinoa dela ontzat ematen den bakarra. Baina hori oztoporik al da berba berria ezin sortzeko? Argi dago ezetz. Hizkuntza garatuz doa eta etengabeen sortzen dira berba berriak. Baliteke asko eta askori “miembra” berba arraro edo arrotz jotzea belarrira, baina dena da ohitzea.

Izan ere, “jueza” berba, orain dela ez asko, oso arrotz suertatzen zen. Oraindik ere erabiltzen dute zenbaitek “la juez” emakumezko epaile bat aipatzeko, hiztegiak ere aldaki femeninoa dakarren arren. Edozelan, zabalduz joan den terminoa da “jueza” eta “miembra” ere susmatzen dugu apurka badoala bide horretatik.

Hala eta guztiz ere, “miembra” hitz hau ez da hain arrotz suertatzen, pertsoneri ordez, erakunde eta enparauei erreferentzia egiten dienean. Ikus ditzagun ondoren aurkitu ditugun zenbait adibide -gure kospusetik kanpokoak-:

- *Asamblea General de Organizaciones **Miembras***
- *Representar a las organizaciones e instituciones **miembras** en sus relaciones con otras instancias nacionales e internacionales.*
- *Los requisitos para ser una organización **miembra** de la Coordinadora son los siguientes...*
- *Programa de asociaciones **miembras***
- *Asociaciones **miembras** de FOLADE*
- *Instituciones **miembras** de CETELA*
- *La Secretaría está en proceso de desarrollar una base de datos de Peritos Aduaneros en las disciplinas aduaneras respectivas que son disponibles en las administraciones **miembras**.*
- *Profesores regulares catedráticos de tiempo completo en una universidad canadiense **miembra** de la AUCC*

Adibide hauetan guztietan “miembra” berbak “institución”, “organización”, “asociación” eta “universidad” modukoei laguntzen die eta, hiztegiak inon ez dakarren terminoa izan arren, ez dirudi oso txarto jotzen duenik. Gainera, esan beharra dago adibide hauek ez daudela emakume elkarte edo erakundeetatik aterata, ikusi besterik ez daukazue azkenengoa “peritos aduaneros” inguruko zerbait dela.

Adibide oso esanguratsua aurkitu dugu “miembra” eta “miembro” hitzen erabilerari dagokionez:

*“El ICAE representa a más de 700 asociaciones de alfabetización; tiene siete organizaciones regionales **miembras**, así como **miembros** nacionales y sectoriales en más de 50 países”*.

Hau da, erakundeak bai direla "miembras", baina pertsonak aipatu behar dituzenean "miembros" maskulino hutsa erabiltzen du. Izan ere "organizaciones miembros", "asociaciones miembros" edota "instituciones miembros" araro egiten zaio hiztunari, substantibo horiek guztiak femeninoak eta "miembro" maskulinoa direlako, beraz, erraz eta lasai asko asmatu eta erabili da "miembra" hitza. Baina pertsonak direnean "miembro" erabiltzen da eta andrazkooi maskulinoa inposatzen zaigu, erakunde batek baino eskubide gutxiago bageneuka legez. Azken batez andrazkook ohituta gaude genero maskulinoaz izendatuak izatera, ezta?

Amaitzeko, adibide zerrenda luzea emango dugu non "miembra" berbak emakumezkoak izendatzen dituen:

- **Miembra** de la Coalición hispana de Illinois.
- **Miembra** del Consejo editorial de Opinión Médica, órgano oficial del Colegio de Médicos y Cirujanos.
- **Miembra** de la Academia Paraguaya de la Historia.
- **Miembra** de un comité de ciudadanos y de personal escolar que aconseja al superintendente en la evaluación...
- Las investigaciones de la Dra. Eskenazi, **miembra** del Colegio Americano de Epidemiología, han sido ampliamente publicadas.
- Investigadora y **miembra** del Centre de Recerca Duoda de la Universitat de Barcelona.
- Leticia Salomón, catedrática universitaria y **miembra** de INTERFORO, indicó que los miembros del Gabinete de Reconstrucción se comprometieron a leer la propuesta.
- Al tomarme la tensión, de entrada descompensada, le he dicho a la **miembra** de los "eficientes" servicios médicos del centro de exterminio de Aranjuez que...
- Ayer, miércoles, el turno le correspondió Encarnación Niceas Martínez Ruiz, **miembra** del consejo de dirección de la revista.

## 12.2. “Autoritadedunak” eta “kritikatuak”

Lan honen hasieran zenbaki eta datu batzuk eman genituen, gure testuetan hizkera androzentrikoa zenbatetan erabiltzen den jakiteko. Hala ere, hona ekarriko dugun fenomeno, kantitatearekin baino, gure subkontzienteak hizkera androzentrikoa balioztatzeko moduarekin dauka zerikusia. Izenburu berean batu baditugu ere, esan beharra dago fenomeno diferenteak direla hauek biak:

Lehenbizikoa, “autoritadedunak” izendatu duguna, gertakari nahiko zabala da. Lanpostu altuekin dago erlazionatuta batzuetan, baina gehienetan jakintza mailarekin edo autoritate mailarekin dauka zerikusia (eta uler dadila autoritate prestigioari loturik eta ez aginteari). Hau da, maila hauek altuak direnean, normalean gizonezkoekin lotu egiten da, baita hizkera androzentrikoa jagoten den testuetan ere. Argiago ikusiko dugu zenbait adibidetan:

**Autor:** 6 kasu aurkitu ditugu, *Técnicas de expresión escrita* kontuan hartu barik -gogoratu testu honetan maskulinoa eta femeninoa txandaka erabiltzen zirela-. 6 kasuetan maskulino hutsean agertu zaigu “autor” hitza, “autora”rik sekula ez.

*“otros autores nos señalan algunos de los mayores inconvenientes de estos valores”*

*“mientras la publicación española considera [...] los autores franceses no lo presuponen”*

*“Algunos autores incluyen...”*

*“los autores de la propuesta”*

*“Autores alemanes también cuestionan la eficacia de los reconocimientos médico laborales”*

*“incluimos una serie de reflexiones y conclusiones finales que los autores hacen de este informe”*

**Experto:** kasu bi aurkitu ditugu, eta biak maskulinoan.

*“el Ministerio de economía y sus expertos de encargo mantienen posiciones frontalmente contrarias”*

*“fuertes incrementos de los futuros IPC que todos los expertos vaticinan”*

**Médico:**

*“la obligación del empresario y médico del trabajo de entregar una ficha con los datos de exposición a la trabajadora o trabajador que abandona la empresa”*

*“Pocos son los médicos que se libran de ejercer esta práctica”*

*“Cuando el médico está atendiendo un aviso y el conductor está aparcando”*

*“Oferta de las plazas de enfermeras-os o médicos de salud laboral”*

*“unas veces la mutua y otras incluso el médico de la empresa están negando el origen laboral de algunas de las bajas que se producen”*

*“A continuación dirígete a tu médico de Atención Primaria a solicitar la baja indicando al médico tu intención de recurrir al INSS el origen de la baja”*

*“Acude al médico de Atención Primaria a solicitar nuevamente la baja”*

*“Solicita al médico un informe del eventual origen laboral del daño”*

*“reivindicaciones tan elementales como tener derecho a asistencia al médico de cabecera sin que se le descuente del salario”*

**Profesional:**

*“Les professionnels de la santé devraient faire des recherches concernant la vie professionnelle” / “Los profesionales sanitarios deberían indagar sobre la historia laboral”*

*“Los profesionales de los servicios de prevención y servicios médicos son contratados por las empresas”*

*“en colaboración con recursos universitarios, con profesionales comprometidos”*

*“debieran ser cumplimentados [...] por los profesionales del Sistema Público de Salud cuando por ellos son diagnosticados”*

**Especialistas, historiadores, sociólogos, economistas...:**

*“En el periodo que hemos analizado, historiadores, sociólogos, antropólogos... hablan de las distintas partes del conflicto. Para unos, es un conflicto entre el campo y la ciudad; para otros, de intereses dinásticos, para otros, entre lo viejo y lo nuevo...”*

*“El conjunto mínimo de datos que debe aportar el personal sanitario de los servicios de prevención en el caso de HEH y las capacidad de los Inspectores médicos de Trabajo para requerir y consultar la información”*

*“no supone -como lo hacen temerariamente algunos economistas- considerar irrelevantes las economías nacionales y las estrategias nacionales de gestión económica”*

*“la capacidad de los gestores de las Administraciones”*

*“También el PNV tiene muchos concejales, diputados, directores... afectados por la misma causa”*

*“los junteros de batasuna estuvieron presentes porque estaba en cuestión la soberanía política, no sólo la amenaza a los concejales”*

*“pedíamos tener una reunión con el Director General de todos los sindicatos y no sólo de los representantes del Tribunal Examinador”*

*“algunos especialistas han sugerido una comparación muy clarificadora al relacionar el funcionamiento textual de los conectores con las señales de tráfico”*

Fenomeno honen arriskua begi bistakoa da, zeren eta emakumezkoak bai geratzen garela bigarren plano batean. Testuetan agertzen garenean ere langileak, afiliatuak, erizainak, batzuetan delegatuak... besterik ez gara. Jakintza edo autoritate maila alturik tartean dagoenean, desagertu egiten gara, besterik gabe.

Antzera gertatzen da “kritikatzen diren” postu, kargu eta abarrekin: enpresaburu, politiko, epaile, faxista eta horrelakoekin, esan nahi dugu. Termino hauetako batzuk -batez ere enpresaburu, patroik eta enparauak- sindikatu bateko testuetan argi dago ez direla oso ondo ikusita egongo. Beste termino batzuk “kritikatzen direla” diogu, zerbait salatzen duten testuetan agertzen direlako. Berrero ere askoz argiago ikusiko dugu geure korpusetik atera ditugun zenbait adibidetan:

**Empresario:** Gero eta emakume gehiago dira enpresaburuak, heren bat inguru. Egia da gizonetzkoak baino gutxiago direla eta enpresa txikiagoak eta langile askoz gutxiago dauzkatela euren kargu, baina existitu existitzen dira. Hala

ere, gure korpusean 44 adibide aurkitu ditugu eta den-denak maskulino hutsean. Salbuespen bakarra Hauteskunde arautegia izan da (empresario/a), baina gomutatu behar dugu bertan sistematikoki ipintzen zela barra eta, hala ere, kasu batean baino gehiagotan "empresario" baino ez zen agertzen.

*"La Ley da un poder especial a los sindicatos "mayoritarios" y a **los empresarios**"*

*"**Los empresarios** siguen utilizando la precariedad como instrumento para incrementar sus beneficios"*

*"La última reforma de 1997 también se hizo eco de reivindicaciones tradicionales de **los empresarios**"*

**Jefe:** 10 kasu maskulinoz. "Jefe o jefa" espresioa kasu bakar batean topatu dugu eta "jefa" beste kasu batean, baina honek andrazko zehatz bati egiten zion erreferentzia ("El Servicio de Prevención pidió colaboración a la **Jefa** del Servicio de Formación del IFAS y ésta no accedió").

*"Hacer un estudio [...] y que los resultados que salgan no van a gustar a **nuestros jefes**"*

*"Las obras y limpiezas que **algunos jefes** realizan en sus casas"*

*"La compensación del esfuerzo realizado se ha traducido [...] a discreción **del jefe de turno**, en varios días de libranza"*

**Políticos:** Hiru kasu, guztiak maskulinoz.

*"Telefónica es el caso más flagrante de connivencia entre **políticos** y empresarios"*

*"Interpelar a **los políticos** en el poder"*

*"al objeto que su dependencia y control por parte de **los políticos** sea aún mayor"*

**Representantes:** 25 kasu, beti maskulinoz eta beti ere sindikatutik kanpokoak (ordezkari politikoak, batez ere)

*"Son **unos 10.000 representantes** de multinacionales quienes hacen presión"*

*"**los representantes** del Tribunal Examinador"*

*"**los que quieren ser y dicen ser nuestros representantes**"*

*"**los representantes políticos vascos**"*

Hala ere, sindikatu barruko ordezkariak direnean, bain agertzen garela andrazkook. Izan ere, honelako lau adibide aurkitu ditugu eta beti agertzen ziren bikoizturik:

*"**las y los representantes** del sindicato"*

*"**las y los representantes** del eskualde"*

**Jueces:**

*"para que **cualquier juez** pueda ilegalizar..."*

*"diciendo que **un juez** decidirá caso por caso"*

*"¿Qué derecho tiene **un juez español** a impedir el derecho de las y los vascos a organizarse?"*

*"pero ese plazo puede ser ampliado si así lo solicita la policía [...] y **el juez** así lo decide"*

*“La Inspección de Trabajo y **los jueces** decidirán quién tiene razón en estos casos”*

*“**los propios jueces** aprovechan la sentencia”*

*“la tres pruebas son [...] intrascendentes para **los jueces**”*

*“**jueces nombrados** desde Madrid”*

**Gobernantes, banqueros, fascistas, negociadores, capitalistas...** :

*“pese a la generosa manga ancha de **los gobernantes europeos**”*

*“LAB se pregunta si son **éstos los dirigentes** que se supone que van a hacer un proceso hacia la soberanía”*

*“**los banqueros** y el gobierno son los responsables de este desaguado”*

*“Es una baza a jugar con los privilegios que se autoadjudican **los banqueros** y **los aseguradores**”*

*“Aunque muchos de **los fascistas** de entonces aparezcan hoy reciclados como demócratas”*

*“apuntándose a la moda de **los demócratas**”*

*“**los neofranquistas** del PP”*

*“va a volcar todas sus energías organizativas y sindicales en neutralizar los efectos de este acuerdo, desoyendo por completo los compromisos adquiridos por **los negociadores españoles**”*

*“**los negociadores** de los enmoquetados salones de Madrid, siempre nos pegan el cambio a nuestras reivindicaciones”*

*“una globalización hecha a medida de **los acaparadores** de poder y dinero”*

*“en fin todos sus acólitos”*

*“**Los liberales vencedores** precisaban de una legislación única en todo el Estado para poder desarrollar su modelo económico”*

*“No estamos por ello de acuerdo con **algunos asalariados** del sistema”*

*“para **los capitalistas vascos** [...] representaba la realización de sus intereses de clase por encima de un proyecto nacional vasco”*

*“la información es una de las mercancías más atractivas para **los capitalistas**”*

*“tal y como afirman **los propagandistas** de los grandes Estados occidentales desde su nacionalismo chauvinista”*

Zenbait andra ere badira kapitalistak edo faxistak, politikariak edo enpresaburuak, nahikotxo epaileak dira eta bankuetan edo Madrilero pasabideetatik ibiltzen dira. Gure testuetan joera izaten dugu emakumeak azalerazteko bakarrik eta gutarrak direnean, eta ez litzateke horrela izan beharko; batek baino gehiagok, seguruenik, fede onez egin arren, hori ere sexista suertatzen delako.



## 12.3. Nazionalitateak

Nazionalitateak aipatzen ditugunean ere fenomeno antzekoa gertatzen da. Andrazkoak aipatzekotan -zeren eta askotan ez baita egiten-, Euskal Herriari dagokionez baino ez dira aipatzen. Beste edozein nazionalitate aipatzen denean, inork ulertzen ez duen moduan, herri horretatik sexu femeninoa desagertu egiten da.

### Vascos:

*"el ARCEPAFE es papel mojado al estar **los vascos** sometidos a las leyes españolas"*

*"**Los vascos** somos capaces de negociar"*

*"queremos dejar constancia de la voluntad positiva que anima a **muchos vascos** de ambos lados del Bidasoa en favor a la reunificación"*

*"Estos regímenes tan diversos han tenido estre sí algo en común, que es su política centralista y jacobina para con **los vascos**"*

*"**Los vascos** no podemos darnos a **nosotros mismos** la soberanía"*

*"**Entre vascos** existen luchas de clases, territoriales, generacionales, culturales... como existen en otros pueblos"*

*"Tenemos derecho a la autodeterminación, aunque haya sectores de **vascos no interesados** o que renuncian a ello"*

"Vascos y vascas" edo "vascas y vascos" esapidea behin baino ez dugu topatu: "**vascos y vascas se alegran de la desaparición de fronteras**" eta beste batean "**las y los vascos**" geroxeago ikusiko dugunez. Hala ere, badira beste-lako moduak euskal herritarrok -osotasunean, andrak eta gizonak- aipatzeko, eta hona heme adibide zenbait:

*"**Los hombres y mujeres de Euskal Herria** no podemos dejar pasar el tren de la libertad y la democracia"*

*"conseguir que **los ciudadanos y ciudadanas de nuestro pueblo** recuperen su capacidad de organización"*

*"los derechos sociales que a **toda ciudadana y ciudadano vasco** le corresponden"*

*"El proceso de paz irlandés incentiva en **la sociedad vasca** la necesidad y posibilidad de articular, asimismo, un proceso..."*

*"el respeto a la voluntad de **la ciudadanía vasca**"*

Hala ere, beste herri batzuk aipatzean zera gertatzen da:

*"muy posiblemente se puedan incentivar dinámicas de colaboración con **catalanes, gallegos, etc.**"*

*"hay **rusos** que reconocerían de buen grado el derecho a la autodeterminación para **los chechenos** y su derecho a un espacio vital; y **chechenos** que renunciarían a ello"*

*"**60 millones de europeos** están expuestos a riesgo químico"*

*"que hay un grupo numeroso que se siente **español o francés**"*

*“encontramos la estrategia de aquellos, nacionalistas españoles, que quieren mantener Hego Euskal Herria bajo el yugo constitucional-autonómico”*

*“la posibilidad de que los españoles encabezados por Mayor Oreja [...] atacaran los principios básicos de nuestro país”*

*“La Alemania de Bismark intenta la germanización violenta de polacos, lituanos, daneses...”*

*“En Bélgica, donde valones y flamencos se plantean biertamente la confederación”*

*“Los ingleses no tienen sentido del humor”*

## 12.4. Zenbait ogibide

Andrazkook, lehen bakarrik gizonezkoek egiten zituzten lanetara sartuz joan gara. Honek arazoak ekarri dizkio lexikografiari, nolabait, lehen aldaki maskulinoa baino ez zeukaten lanetarako, termino femeninoen beharra ere sumatu eta sumatzen delako. Honen aurrean, hiru aukera posible daude -gramatikaren ikuspuntutik-:

- a) Termino maskulinoa femenino bihurtu, jadanik existitzen diren beste femeninoekiko analogiaz: *“la jueza”, “la arquitecta”*.
- b) Genero maskulinodun terminoa sexu bietarako erabili, genero femeninoko artikulua eta abarrei eutsirik: *“la juez”, “la médico” (“la fiscal” edo “la testigo” moduko terminoekiko analogiaz)*
- d) Termino maskulinoa androginizatu: *“el juez”, “el médico”* sexu bietarako, alegia (*“el ser”* edo *“el personaje”* modukoekiko analogiaz)

Aukera hauetatik bata edo bestea egokien jo orduko, hainbat faktore daude tartean: fonologikoak, morfologikoak eta semantikoak eta, zer esanik ez, gramatikatik kanpokoak ere bai.

Guk, hiruetatik lehenbizikoa gomendatuko dugu kasu gehienetan, geroago ikusiko dugunez. Era berean, azken urteotan, badirudi bai hiztunek bai komunikabideek lehenbiziko aukera horrexen bidetik jo izan dutela batik bat, hau da, oro har termino maskulinoak, nahiko erraz eta natural, feminizatuz joan dira.

Genero maskulinodun terminoa sexu bietarako gero eta gutxiagotan erabiltzen da, eta aldaketa oso urte gutxitan gauzatu da. Honen adibidea da *“ministra”* hitza: gaur egun *“la ministra”* askoz entzunagoa da *“la ministro”* baino. Edozelan ere, ez oso aspaldi horrelaxe erabiltzen zen; gogoratu, bestela, Margaret Thatcher, Golda Meir edo Indira Ghandi gobernuan zeudenean *“la primer ministro”* edo *“la primera ministro”* esaten zitzaizela komunikabide guztietan.

Hala ere, oraindik pentsatzen da -kontzienteki edo inkontzienteki- termino maskulinoa prestigio handiagokoa dela edota termino femeninoak ogibidea nolabait desprestigiatzen duela. Oso adierazgarria da, esaterako, zelan epaitegietako idazkariek *“la secretario”* sinatzen duten, *“la secretaria”* esapideak euren lana gutxiagotuko bailuen (seguruenik *“secretaria”* berbak berarekin dakartzan konnotazio markatuengatik gertatzen da hau).

Emakumeen lanpostuak edo karguak maskulinoz erabiltzeak askotan arazoak ekartzen ditu, batez ere konkordantziak egitean, zeren eta askotan ikusten baitira genero biak esapide berean nahasturik:

*“La Ministro de Educación”*

*“La primer Ministro de Nueva Zelanda”*

*“La señor Ministro de Cultura de Argentina”*

*“La Primer Ministra de Bangladesh”*

Hauek guztiek gogora ekartzen digute zelan hainbat urtetan Frantziako hiztegiek eta akademiakideek gomen-  
datzen zuten “Madame le Ministre” zentzugabekeria, edota, Marguerite Yourcenar akademiakide izendatu zutenean, “aca-  
démicien” titulua eman zioten, “académicienne” ordez.

Ondoren zenbait ogibideren zerrenda emango dugu, femeninoz eta maskulinoz. Alde batetik DRAEk zelan  
dakartzan termino horiek eta, beste alde batetik, zeintzuk diren gure gomendioak adieraziko dugu. Emakumezkook zen-  
bait ogibidetara sartu eta aritu ahala, termino berriak asmatu badira ere, egia da oraindik asko falta direla onartuak izate-  
ko. Izan ere, gauza jakina da Real Academia Española delakoan zenbat emakumezko dauden eta honelako gaiekin nora  
arteko sentsibilitatea ei daukaten bertako kideek...

Zenbait autorek gramatika arauak ipini eta ipiniko dituzte aitzakitzat, horrelako substantibo berri ez sortzeko,  
baina gure irizpidea beti izango da feminismoarena eta parekidetasunarena arau antzuen gainetik. Hizkuntza aldatu egi-  
ten da eta ez da horren beldur izan behar, denborak eta jendearen erabilerak esango du zein termino nagusituko den.  
Azken batean, hiztunak dira arau gramatikalak egiten dituztenak, eta ez inongo akademiak

83

**Abogado, da:** *m. y f. licenciado o doctor en derecho que ejerce profesionalmente la dirección y defensa de las partes en toda clase de procesos. Usada también la forma en masculino para designar el femenino “Rosa es abogado”.* Abogado fiscal: *m. Grado inferior de la carrera fiscal.*

Erabil daitezela beti “abogada” andrazkoentzat eta “abogado” gizonezkoentzat. “Abogado fiscal” termino  
horretan, ordea, ikusten dugu zelan uzten zaien bakarrik gizonei. Emakumezkoentzat “abogada fiscal” izango  
litzateke erabili beharreko esapidea (eta ez “\*abogada fiscal”, kasu honetan “fiscal” izenondoa edo adjekti-  
boa delako eta ez substantiboa).

**Administrativo, va:** *m. y f. Persona empleada en la administración de alguna entidad.*

Erabil daitezela beti “administrativa” andrazkoentzat eta “administrativo” gizonezkoentzat.

**Albañil:** *m. Maestro u oficial de albañilería*

**Albañila:** *v. Abeja albañila*

Ikusten dugunez, erleak, andrazkook ez bezala, bai izan ahal direla igeltseroak. Inork ezin dezake esan  
“albañila” erabiltzea basakeria denik, zeren existitu egiten baita. Izan ere, “abeja” gazteleraz femeninoa

denez, animalia izendatzeko "albañila" femeninoa egitearen premia sumatu zen bere momentuan. Ez dago arrazoirik orain pertsoneri ere ez aplikatzeko.

Beraz, erabil daitezela "albañila" andrazkoentzat eta "albañil" gizonezkoentzat.

**Anestesista:** *Especialista en anestesia.*

"Anestesista" berbak ez dauka aldakirik eta, beraz, bere horretan erabili behar da sexu bietarako. Hala ere, kontuz hitz honen sinonimoarekin: "anestesióloga" eta "anestesiólogo"

**Aparejador, ra:** *2. m. y f. Técnico titulado que interviene con funciones propias en la construcción de edificaciones. Usada también la forma en masculino para designar el femenino "Rosario es aparejador".*

Erabil daitezela beti "aparejadora" andrazkoentzat eta "aparejador" gizonezkoentzat.

**Aprendiz, za:** *m. y f. Persona que aprende algún arte u oficio*

"Aprendiza" femeninoa DRAEk ere onarturik badauka ere, oraindik askoz gehiagotan erabiltzen da "la aprendiz" "la aprendiz" baino. Hala ere, erabil dadila azken hau femeninoa izendatzeko.

**Arquitecto, ta:** *m. y f. Persona que profesa o ejerce la arquitectura. Usado también la forma en masculino para designar el femenino: "Laura es arquitecto"*

Erabil daitezela beti "arquitecta" andrazkoentzat eta "arquitecto" gizonezkoentzat, baita "arquitecta técnica" eta enparauak.

**Auxiliar:** *com. En los ministerios y otras dependencias del Estado, funcionario técnico o administrativo de categoría subalterna.*

"Auxiliar" berbak ez dauka aldakirik eta bere horretan erabili behar da sexu bietarako. Baina, kontuz, badira "auxiliar técnica" eta "auxiliar técnico" edo "auxiliar sanitaria" eta "auxiliar sanitario".

**Ayudante:** *com. En algunos cuerpos y oficinas, oficial subalterno.*

**Ayudanta:** *f. mujer que realiza trabajos subalternos, por lo general en oficios manuales.*

Adieraziak ezberdinak izan arren, "ayudanta" berba existitu, existitzen da, beraz, hauxe erabili dadila femeninoa egiteko. Hala ere, kontuz ibili beharra dago, "ayudante" substantiboa edo adjektiboa izan daitekeelako. Izenondo edo adjektibo funtzioak betetzen dituenean gure gomendioa da "ayudante" erabiltzea genero bieta-

rako. Honela, "ayudanta de cocina" edo "ayudanta de dirección" osa ditzakegu, baina "ingeniera técnica ayudante" edo "alumna ayudante en investigación" egingo genituzke.

**Capataz, za:** *m. y f. Persona que gobierna y vigila a cierto número de trabajadores.*

Erabil daitezela "capataza" andrazkoentzat eta "capataz" gizonezkoentzat.

**Concejal, la:** *m. y f. miembro de una corporación municipal. Usada también la forma en m. para designar el f. "Luisa es concejal"*

Erabil daitezela beti "concejala" andrazkoentzat eta "concejal" gizonezkoentzat.

**Delineante:** *com. Persona que tiene por oficio trazar planos*

Oraintsu "ayudante" berbarekin ikusi dugunez, -NTE amaieradunekin arazo berbera topatuko dugu beti. -NTE atzizkia aditzei lotzen zaie eta aldakirik ez dauka. Atzizki honen esanahia <ekintza burutzen duena> da. Hala ere, zerrenda honetako hainbat adibidetan ikusiko dugu zelan hitzunek sortu duten -NTA femenino baten premia sumatu dutenean eta zelan horietako batzuk DRAEk berak biltzen dituen. Kasu honetan ez da horrela, baina gure gomendioa da "delineanta" erabiltzea, jadanik existitzen diren beste adibide batzuekiko analogiaz. Edozelan, baten bati "delineanta" oso arrotz suertatzen bazaio, erabil dezala "la delineante".

**Diputado, da:** *m. y f. Persona nombrada por elección popular como representante en una cámara legislativa, nacional, regional o provincial*

Erabil daitezela beti "diputada" andrazkoentzat eta "diputado" gizonezkoentzat.

**Dirigente:** *Que dirige*

"Delineante" berbarekin gertatzen den kasu berbera. Beraz, "la dirigente" edo "la dirigente" utziko ditugu aukeran.

**Directivo, va:** *4. En algunos organismos internacionales, disposición de rango superior que han de cumplir todos sus miembros.*

Erabil daitezela beti "directiva" andrazkoentzat eta "directivo" gizonezkoentzat.

**Edil, la:** *m. y f. concejal. Usada también la forma masculina para designar el femenino "Consuelo es edil".*

Erabil daitezela beti "edila" andrazkoentzat eta "edil" gizonezkoentzat.

**Fiscal:** *3. Persona que representa y ejerce el ministerio público en los tribunales.*

**Fiscala:** *f. Mujer que ejerce el cargo de fiscal*

Ikusten dugunez, "fiscala" onartuta dago, nahiz eta "fiscal" berba genero bietarako uzten den. Oraindik ere erabiltzen da sarri askotan "la fiscal" eta guk aukera hori ere utziko dugu, baten bati "fiscala" lar gogor suertatzen baldin bazaio. Hala ere, gure gomendioa "fiscala" andrazkoentzat eta "fiscal" gizonezkoentzat erabiltzea da.

**Gobernador, ra:** *Que gobierna. 2. m. y f. Persona que desempeña el mando de una provincia, de una ciudad o de un territorio.*

Erabil daitezela beti "gobernadora" andrazkoentzat eta "gobernador" gizonezkoentzat.

**Gobernante:** *Que gobierna. 2. m. Hombre que se mete a gobernar algo*

**Gobernanta:** *f. Mujer que en los grandes hoteles tiene a su cargo el servicio de un piso en lo tocante a limpieza de habitaciones, conservación del mobiliario, alfombras y demás enseres. 2. Encargada de la administración de una casa o institución.*

Sasi-bikote honen parekidetasunik eza begibistakoa da. "La gobernante" erabiltzea ez dirudi beharrezkoa "gobernanta" hitza existitu existitzen baita. Gainera, kontrako kasua denean, hots, hoteleko lanpostua gizon batek betez gero, ez dago arazorik "gobernante" esateko:

*"Real Decreto 304/1996, de 23 de febrero, por el que se establece el certificado de profesionalidad de la ocupación de **gobernanta/e** de hotel"*

*"Programa de curso de formación profesional ocupacional: gobernanta/e de hotel"*

Egia da oso gutxitan erabiltzen dela "gobernanta"; hala ere, adibideren bat aurkitu dugu:

*"Algunos Egiptólogos consideran a Hatshepsut como **la gobernanta** mas grande de todos los tiempos"*

*"Al desembarcar en ellas, los discípulos vencieron a dragones y monstruos y cristianizaron a **la malvada gobernanta** de aquellas tierras, la reina Lupa"*

Beraz, erabil daitezela beti "gobernanta" andrazkoentzat eta "gobernante" gizonezkoentzat

**Industrial:** *2. com. Persona que vive del ejercicio de una industria o es propietario de ella.*

Atzizki honek ez dauka aldakirik eta, amaiera bereko zenbait terminotarako femeninoa osatu bada ere, "industrial" honetarako ez da horrela gertatu. Beraz, erabil dadila "industrial" genero bietarako.

**Ingeniero, ra:** *m. y f. Persona que profesa la ingeniería o alguna de sus ramas. Usada también la forma en mascu-*

*lino para designar el femenino "Silvia es ingeniero".*

Erabil daitezela beti "ingeniera" edo "ingeniera técnica" andrazkoentzat eta "ingeniero" edo "ingeniero técnico" gizonezkoentzat.

**Jefe:** *com. Superior o cabeza de una corporación, partido u oficio. Jefe de Administración com. Jefe de negocio com. Jefe de Estado com. Jefe de Gobierno com. Jefe superior de Administración com.*

**Jefa:** *f. Superiora o cabeza de un cuerpo u oficio. 2. Mujer del jefe.*

Erabil daitezela beti "jefa" andrazkoentzat eta "jefe" gizonezkoentzat, baita "Jefa de Administración, Jefa de negociado, Jefa de Estado..."

**Juez:** *com. Persona que tiene autoridad y potestad para juzgar y sentenciar.*

**Jueza:** *f. Mujer que desempeña el cargo de juez. 2. Mujer del juez*

Erabil daitezela beti "jueza" andrazkoentzat eta "juez" gizonezkoentzat

**Magistrado, da:** *m. y f. Alto dignatario del estado en el orden civil, hoy especialmente en la administración de justicia.*

87

Erabil daitezela beti "magistrada" andrazkoentzat eta "magistrado" gizonezkoentzat.

**Matrona:** *f. Mujer especialmente autorizada para asistir a las parturientas.*

Ikusten dugunez, DRAEk gizonezkoei emaginak izateko eskubidea ukatzen die. Hala ere, egon badaude eta hauentzako ere termino egokia bilatu beharko genuke. Gure gomendioa "matrón" hitza erabiltzea da, jadanik existitzen diren beste batzuen analogiaz: "comadrón"/"comadrona", "patrón/patrona"

**Médico, ca:** *m. y f. Persona legalmente autorizada para profesar y ejercer la medicina. Usada también la forma m. para designar el f. "Julia es médico".*

Erabil daitezela beti "médica" andrazkoentzat eta "médico" gizonezkoentzat.

**Ministro, tra:** *m. y f. Persona que dirige cada uno de los departamentos ministeriales en que se divide la gobernación del Estado. Primer, ra ~ m. y f. Jefe del gobierno o presidente del Consejo de ministros.*

Erabil daitezela beti "ministra" andrazkoentzat eta "ministro" gizonezkoentzat.

**Obrero, ra:** 3. *m. y f. Trabajador manual retribuido*

Erabil daitezela beti "obrero" andrazkoentzat eta "obrera" gizonezkoentzat.

**Patrón, na:** 7. *m. y f. patrono*

**Patrono, na:** 5. *m. y f. Persona que emplea obreros en trabajo u obra de manos.*

Erabil daitezela beti "patrona" andrazkoentzat eta "patrón - patrono" gizonezkoentzat.

**Perito, ta:** 2. *m. y f. Ingeniero técnico. Usada también la forma en masculino para designar el femenino "Asunción es perito"*

Erabil daitezela beti "perita" andrazkoentzat eta "perito" gizonezkoentzat.

**Practicante:** 3. *com. Persona que posee título para el ejercicio de la cirugía menor.* 4. *com. Persona que por tiempo determinado se instruye en la práctica de la cirugía y medicina, al lado y bajo la dirección de un facultativo.* 5. *com. Persona que en los hospitales hace las curas o administra a los enfermos las medicinas ordenadas por el facultativo de visita.* 6. *com. Persona que en las boticas está encargada, bajo la dirección del farmacéutico, de la preparación y despacho de los medicamentos.*

**Practicanta:** *f. practicante (mujer que hace curas en los hospitales).* 2. *practicante (mujer que en las boticas prepara medicamentos)*

"Practicanta" berba onartuta egonda ere, oraindik ere erabiltzen da askoz gehiagotan "practicante" femeninorako ere bai. Gure gomendioa da "practicanta" femeninorako eta "practicante" maskulinorako erabiltzea.

**Presidente:** *com. Persona que preside*

**Presidenta:** *f. Mujer que preside*

Erabil daitezela beti "presidenta" andrazkoentzat eta "presidente" gizonezkoentzat.

**Secretario, ria:** 2. *m. y f. Persona encargada de escribir la correspondencia, extender las actas, dar fe de los acuerdos y custodiar los documentos de una oficina, asamblea o corporación.* 3. *Persona que por oficio público da fe de escritos y actos. Secretario de Estado m. Ministro de Estado.*

Erabil daitezela beti "secretaria" andrazkoentzat, baita "Secretaria de Estado" ere, eta "secretario" gizonezkoentzat.

**Senador, ra:** *m. y f. Persona que es miembro del senado*



Erabil daitezela beti "senadora" andrazkoentzat eta "senador" gizonezkoentzat.

**Socio, cia:** 1. m. y f. *Persona asociada con otra u otras para algún fin.* 2. m. y f. *Individuo de una sociedad, o agrupación de individuos. ~ capitalista.* 1. m. y f. *Persona que aporta capital a una empresa o compañía, poniéndolo a ganancias o pérdidas. ~ industrial.* 1. m. y f. *Persona que no aporta capital a la compañía o empresa, sino servicios o pericia personales, para tener alguna participación en las ganancias.*

Erabil daitezela beti "socia" femeninorako" eta "socio" maskulinorako

**Técnico, ca:** 3. m. y f. *Persona que posee los conocimientos especiales de una ciencia o arte*

Oraindik ere erabiltzen da nahikotxo "la técnico", baina "la técnica" ondo baino hobeto dago esanda, beraz, erabil daitezela beti "técnica" andrazkoentzat eta "técnico" gizonezkoentzat.

**Ujier:** 1. m. *Portero de estrados de un palacio o tribunal.* 2. m. *Empleado subalterno que en algunos tribunales y cuerpos del Estado tiene a su cargo la práctica de ciertas diligencias en la tramitación de los asuntos, y algunas veces cuida del orden y mantenimiento de los estrados*

Ikusten dugunez, maskulinoa baino ez digute ematen, hots, andrazkook ezin ei gara atezainak izan. Proposatu izan da "ujiera" berba. Izan ere -ER atzizkia -ERO atzizkiaren aldakia baino ez da. Honela "mercadero" zaharrarekin batera "mercader" berba ere badaukagu; honen femeninoa "mercadera" izanik. "Prócer" substantiboa hiztegian maskulinoz baino ematen ez badigute ere, "prócero/prócer" adjektiboak ere badaukagu. Eta, azkenik, "bachiller" hitzaren femeninoa "bachillera" da.

Bestelako irtenbideak ere aurkitu ditugu arazo honetarako, hala nola "líder" hitzetik "lideresa" osatzea (azken berba hau DRAEk berak badakar eta esan beharra dago, guretzat nahiko arrotza izan arren, Latinoamerikan nahiko erabilia dela. Beharbada "ujieresa" proposatzea ausartegia izango litzateke, adibiderik bat ere topatu ez dugunez gero, "ujiera" berbarekin ez bezala.

Gure gomendioa "ujiera" femeninorako eta "ujier" maskulinorako erabiltzea da.

**Vigilante:** 3. com. *Persona encargada de velar por algo*

"Vigilante" berbarekin berriro ere -NTE atzizkiaren arazoa daukagu. -NTE berez aldaririk ez dauka eta, beraz, horrela erabili beharko litzateke sexu biak izendatzeko. Hala ere, badirudi jendeak "vigilanta" hitzaren premia sumatu izan duela, topatu ditugun adibide guztiek argi uzten dutenez. Esaterako:

*"Curso de vigilanta de seguridad"*

*"Iba seguido por la vigilanta, mujer de aspecto cansado, de cabellera gris..."*

*"Torre de Belem [...] la vigilanta que ha visto partir a tantos navegantes"*

*"El control se refuerza con la presencia de otro guía, una conservadora [de las cuevas] con maneras de estricta vigilanta"*

*"en el hospital no hemos sido los únicos en solicitar sus confidencias: una vigilanta fue encargada de hacerlo..."*

Beraz, erabil daitezela "vigilanta" femeninorako eta "vigilante" maskulinorako.

"Vigilante jurado" esapidea zelan feminizatu? "vigilanta jurado"? "vigilanta jurada?" adibideren bat aurkitu dugu "vigilante jurada" moduan. Hala ere, "vigilanta" erabiltzen badugu, "vigilanta jurada" izango litzateke. Kasu honetan "jurado" horrek adjektibo moduan jokatzeko du ("Que ha prestado juramento al encargarse del desempeño de su función u oficio: intérprete, vocal, veedor... jurado") eta, hortaz, ez dago arazorik aldaki femeninoa ("jurada") erabiltzeko.

# Txostena

## **Erabilitako bibliografia**

91



## Bibliografía

AYUNTAMIENTO DE GETXO, Recomendaciones para el uso no sexista del lenguaje  
Interneten: <http://www.getxo.net/cas/vivir/servsoc/dicciona.htm>

CALLAMARD, Agnes, "Le sexisme à fleur de mots", *Le Monde Diplomatique*, martxoak 15-apirilak 15, 1998.  
Gaztelerezako bertsioa interneten: <http://www.nodo50.org/mujeresred/feminismo-callamard.htm>

DE ANDRÉS CASTELLANOS, Soledad, "Sexismo y lenguaje. El estado de la cuestión: reflejos en la prensa", *Espéculo, revista de estudios literarios*, 16. zk., Madril, Unibertsitate Konplutentsea, 2000ko arazoa-2001eko otsaila.  
Interneten: <http://www.ucm.es/info/especulo/numero16/sexis948.html>

DE ANDRÉS CASTELLANOS, Soledad, "Sexismo y lenguaje. El estado de la cuestión: reflejos en la prensa (II)", *Espéculo, revista de estudios literarios*, 17. zk., Madril, Unibertsitate Konplutentsea, 2001eko martxoa-ekaina.  
Interneten: <http://www.ucm.es/info/especulo/numero17/sexism2.html>

DEMONTTE, Violeta, "Naturaleza y estereotipo: la polémica sobre un lenguaje femenino", *Nuevas perspectivas sobre la mujer*, Madril, Universidad Autónoma de Madrid, 1982.

ERRAZU COLÁS, M<sup>a</sup> Ángeles, *Recomendaciones para un uso no sexista del lenguaje*, Zaragoza, Instituto Aragonés de la Mujer, 1995.

GARCÍA MESEGUER, Álvaro, "El español, una lengua no sexista", Fernández de la Torre Madueño, M<sup>a</sup> Dolores, Medina Guerra, Antonia M<sup>a</sup>, Taillefer de Haya, Lidia (arg.), *Igualdad Lingüística: el sexismo en el lenguaje*, Servicio de Publicaciones de la Diputación Provincial de Málaga, 51-76 or.

GARCÍA MESEGUER, Álvaro, *¿Es sexista la lengua española? Una investigación sobre el género gramatical, papeles de comunicación*, Barcelona, Paidós, 1994.

GARCÍA MESEGUER, Álvaro, *Lenguaje y discriminación sexual en la lengua española*, "La imagen de las mujeres en los medios de comunicación" jardunaldietan egindako ponentzia, Madril, 1996ko azaroaren 11n eta 12an.  
Interneten: <http://europa.eu.int/comm/translation/bulletins/puntoycoma/45/pyc456.htm>

GARCÍA MOUTON, Pilar, *Cómo hablan las mujeres*, Cuadernos de lengua española, Madrid, Arco Libros, 1999.

GRUPO LA RUDA, *Hablar en femenino*  
Interneten: <http://www.geocities.com/CapitolHill/4102/hablar.html>, Zaragoza.

LAGARDE, Marcela, *El castellano, una lengua de caballeros*  
Interneten: [http://www.nodo50.org/mujeresred/marcela\\_lagarde-elcastellano.html](http://www.nodo50.org/mujeresred/marcela_lagarde-elcastellano.html)

LAKOFF, Robin, *El lenguaje y el lugar de la mujer*, Barcelona, Editorial Hacer, 1995 (3. arg.)

LLEDÓ CUNILL, Eulàlia, *Recomendaciones para la redacción de un discurso académico libre de sexismo y androcentrismo*  
Interneten: <http://www.sprachlabor.fu-berlin.de/adieu/recomen/indice.html>

LLEDÓ CUNILL, Eulàlia, *Nombrar a las mujeres, describir la realidad: la plenitud del discurso*, curso de formación y acreditación en consultoría para la igualdad de mujeres y hombres, Emakunde  
Interneten: [http://www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje\\_1.pdf](http://www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje_1.pdf)

MINISTERIO PARA LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS, "Uso no sexista del lenguaje administrativo" en *Manual de estilo del lenguaje administrativo*, Madrid 1991, pp.155 y ss.

MORENO, Montserrat, *Cómo se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela*, Bartzelona, Icaria, 1993 (2. arg.).

POLA Z., Maria Jesús, *Anteproyecto de Ley para el establecimiento del marco legal de las asociaciones sin fines de lucro en la República Dominicana*, Perspectiva Ciudadana, República Dominicana.  
Interneten: <http://www.perspectivaciudadana.com/020320/documentos02.html>

RAMOS, Celina, *Los medios de comunicación, agentes constructores de lo real*  
Interneten: <http://www.quadernsdigitals.net/articles/comunicar/comunicar5/com5108.pdf>

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA, *DRAE, Diccionario de la lengua española*, Madrid, Espasa Calpe, 2001.(22. arg.)

SCHMUKLER, Beatriz, "Las madres y la producción cultural en la familia", *La antropología social y los estudios de la mujer*, Buenos Aires, Edit. Humanitas, 1987.

VIOLI, Patrizia, *El infinito singular*, Madrid, Cátedra, 1991.